

Berrigara

Martzial Agirre: XIX. mendeko eskultore handia

Erakusketa udaletxean, heriotzaren 100. urtemugan



RENAULT

Eta orain...



Gertu zaude?

Clio sport

MECA

BERGARA

Erakusketa eta tailer

Amillaga 5

BERGARA

Tf. 943 76 40 68

ALDIBI AUTOAK, S.A.



AMAITU URTEA NISSAN BAT GIDATZEN



URTE AMAIERAKO ESKAINTZA BEREZIAK



Almera



Almera Sedan



Almera Tino



Primera



Maxima

Aldibi

T. Blanco



Zigarrola kalea, 1
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 20 02
Faxa: 943 79 65 65
aldibi@nortekar.com

Olaso kalea, 23
20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 74 20 37
Faxa: 943 75 35 24
aldibi.elgoibar@nortekar.com

Amillaga, 22
20570 BERGARA
Telefona: 943 76 17 35
Faxa: 943 76 17 35

Grupo
Nortekar



Neuk lagunduko zaitut, alkate jauna

Iñaki Artola

Erabaki garrantzitsua hartu behar duzu eta ondo pentsatu beharra duzu, itxura. Goienera telebistaz ari naiz, noski. Dударik gabe ez da txantxetako erabakia eta horregatik neuk lagunduko zaitut.

Euskararen Aholku Batzordeak 1998ko ekainaren 24ko Batzorde Osoaren bileran aho batez onetsi eta Eusko Jaurlaritzaren 1998ko uztailaren 28ko Gobernu Batzordeak onartutako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak honela dio hitzez hitz IV.3.6. atalaren 5. pasartean:

“Tokian tokiko informazioaren premiak, bestalde, tokian tokiko telebistak ekarriko ditu, seguruenik. Hori ere aparte-ko aukera izango da euskararentzat. Normalkuntzarako tresna baliotsua suertatuko da. Izan ere, herriko telebistak herritarren harremanak eta loturak sendotuko ditu, bertako jendearen, gertaeren eta albisteen berri ematen duelako. Tokian tokiko euskara erabiltzeko aukera eskainiko du, bertako jendearen ahozko jardunari esker”.

Bada zerbait ezta?, baina ez da guztia, aipatu txostena helburu zehatzak eta egitasmo-proposamenak egitera iristen denean, VI.3 atalean, berriro berariazko ondoko aipamena egiten die herri-telebistei:

“Euskarazko herri-telebisten garapen-markoa lantzeko lan-ildo bat martxan jarri behar da, proiektuak bultzatzen ari diren eragile sozialen eta erakunde publikoen artean”.

Eta nork esaten du hori guztia? Bi urtez gaiaren inguruan aritutako gizatalde erraldoiak; EAEko erakunde guztien ordezkaritza duten 15 goi agintari, lehendakaria buru dutela eta 27 aditu, hizkuntzalariak, soziologoak, politikoak, idazleak, pedagogiak, kultura-gizon-emakumeak, e.a. Eta nik, eta nire alboko etxekonekoak, eta azpikoak eta dendakoak eta kalekoak eta seme-alabak eta agureak eta... Bada zerbait, ezta?

«Baina pentsatzea ez da gaia geroko gerotan usteltzen uztea. Gure gazteek bertako telebistan ikusi behar dituzte inguruan gertatu diren kirol ospakizunak, eta ez ezinbestean erdal prentsara jo behar izan horretarako»

Erabakia garrantzitsua da eta ondo pentsatu behar da. Ados! Baina, pentsatzea ez da gaia geroko gerotan usteltzen uztea. Gure gazteek bertako telebistan ikusi behar dituzte, gaur, inguruan gertatu diren kirol ospakizunak, eta ez ezinbestean erdal prentsara jo behar izan horretarako. Gure heldu eta agureek dute gure artean bertako euskalkiaren eredurik jasoena eta orain eraman behar ditugu telebistara, bihar agian ezinezkoa gertatuko zaigu. Gatzagatik Bergarara eta Antzuola-Oñatitik Elgetara, auzoen hiria osatuz, bat etorri behar dugu ezinbestean hurrengo urteotan hainbat gorabeheratan. Zer egokiago horrelako tresnarekin hastea baino.

Beste hainbat lerro bete ditzaket zure erabakian laguntzeko, baina agian Berrigarakoak haserretu egingo zaizkit luzeegi jotzeagatik. Eta BERRIGARA aipatu dudanez, Jardun elkartearen, BERRIGARA aldiakariaren eta bailarako beste euskara elkarte guztien 10-12 urte luze hauetako ibiliek ez al dio Goienera proiektuari inongo bermerik ematen? Ez al dute elkarte hauek soberan frogatu urte hauetan duten gizarte-balioa? Ez al du erabakia errazten?

Lagundu zaitudalakoan eta bailarako azkenak izango ez garen itxaropenarekin agurtzen zaitut.<

barruan



M. A. Elkoroberezibar
‘Bonofotoa’ atalaren egilea

“Bonofotoa lehiaketa Bergarako lekuak ezagutzeko beste modu bat da”

6.



Tasio Otero
ONCEko kupoi saltzaillia

“Egunian hirurehun bat kupoi saltzen dot; eguakitzetan, berriz, 1.200 inguru”

17.



Joseba Herran
Pilotaria

“Atzealdean hobeto nabil eta nire jokoa egiten ahaileginduko naiz finalean”

21.

AGENDA ETA ZERBITZUAK

hi, gazte!



BEKAK

Praktikak. Europako Parlamentua. Goi mailako unibertsitate tituludunak, 35 urte berakoak, hizkuntzak. Europako Parlamentuan praktikak egiteko 57 beka. Epea: abenduak 31.

JARDUERAK

Elkartasuna. Donostiako Udala. Elkartasunaren 5. jaialdia Donostian. Beste kultura batzuekin loturiko kontzertuak, zinema eta hitzaldiak izango dira. Urriaren 24tik abenduaren 28a arte

IKASTAROKAK

Prebentzioa. Beasaingo Gurutze Gorria. Laneko arriskuen prebentzionista izateko kurtsoa. 320 ordu, 2001eko martxoaren 13tik irailaren 30era. Epea: 2001eko otsailak 15

Ostalaritza. Gipuzkoako Ostalaritzako Enpresarien Elkarte. Teoria eta praktika. 6 hilabeteko lan-kontratua ziurtatzen da. Epea: Abenduak 22

SARIAK

Xabier Lizardi. Zarauzko Udala; Gipuzkoako Foru Aldundia. XIX Xabier Lizardi Saria, haur eta helduentzako ipuin-saria. Epea: 2001eko urtarrilak 19. **"Joven y Brillante": Ekologia.** J&B. 2000. urtean garatu diren edota egun garatzen ari diren, ingurumenaren eta ekologiararen hobekuntzarako proiektuak. 18 eta 30 urte bitarteko gazteak. Epea: otsailak 28.

LAN ESKAINTZAK

Administrari laguntzailea. Egesebarko Udala. Eskola Graduatuak, LH 1 edo baliokidea. Epea: abenduak 20. **Gizarte Laguntzailea.** Egesebarko Udala. Gizarte Laguntzailea edo Gizarte-Laneko Diplomaduna. B gidabaimena eta ibilgailua izatea. Epea: abenduak 20. **Famili Laguntzailea.** Egesebarko Udala. Eskola graduatua edo baliokidea. B gidabaimena eta ibilgailua izatea. Epea: abenduak 20.

KARNETAK

Nazioarteko Aterpekeide, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatorzatzeko. Gazte Informazio Gunera.

INFORMAZIO GEHIAGO:

BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA: Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregioko panelak. Telefonoa: 943 77 91 57. E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net. Osteguna eta ostirala: 16:00-20:00. Larunbata: 09:30-13:30

DHARRA. Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizueke Gazte Informazio Gunera igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketaren eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazteei nahiz probintzia guztikoei informazioa zabaltzeko. Mila esker.

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru



Bakeoso

Baketsua.
– Zelako bakeosuak
dien zure umiak.

hau giroa!

San Juan auzoan jasotako datuak

Luis Mari Agirre	Temperatura maximoa	Temperatura minimoa	Euria
Abenduak 7, eguena	21 °C	9 °C	3,5 l/m ²
Abenduak 8, eguakitz	16 °C	8 °C	0,3 l/m ²
Abenduak 9, zapatua	16 °C	7 °C	0,2 l/m ²
Abenduak 10, domeka	17 °C	12 °C	1,1 l/m ²
Abenduak 11, astelehena	17 °C	8 °C	- l/m ²
Abenduak 12, martitzena	19 °C	14 °C	- l/m ²
Abenduak 13, eguaztena	17 °C	8 °C	4,9 l/m ²

mezak

Santa Marina

Domekak: 11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.
Lanegunak: 19:30.

San Pedro

Domekak: 09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:00.

Osintxu

Domekak: 11:30.
Zapatuak: 19:00.

Elosu

Domekak: 10:00.

Ubera

Domekak: 10:30.

San Juan

Domekak: 11:00.

Basalگو

Domekak: 13:00.

San Prudentzio

Domekak: 10:30.

URTE-MEZAK

Santa Marina

Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.

San Pedro

Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

Labegarieta

Domekak: 10:00.

San Lorenzo

Zapatuak: 20:00.

Angiozar

Domekak: 11:00.

Eguakitzak: 19:00.

Monja

Zaharrak

Domekak: 18:00.

Zapatuak eta lanegunak: 20:00.

Mizpirualde

Domekak: 11:45.

Zapatuak eta lanegunak: 11:45.

Antzuola

Domekak: 09:00, 11:30.

Zapatuak eta lanegunak: 19:30.

Uzarraga

Domekak: 10:00.

urbanoa

San Lorenzo/San Juandik irteerak

07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Mugertza, Zubieta, San Martin plaza, San Antonio (Zumelaga aurrean), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta/Olabarrenetik irteerak

07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

txandak

FARMAZIAK

EGUAKITZA 15:
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74
ZAPATUA 16:
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87
DOMEKA 17:
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87
ASTELEHENA 18:
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05
MARTITZENA 19:
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63
EGUAZTENA 20:
MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15
EGUENA 21:
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74

OGIA

DOMEKA 17. Mizpildia

TELEFONOAK

OSASUNA / LARRIALDIK
Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
Bergarako udaltzaingoa. 943 77 91 06
Antzuolako udaltzaingoa. 943 76 62 46
Ertzaintza. 943 76 53 40
Osasun Etxea. 943 76 24 40
Asepeyo. 943 76 16 43
Pakea. 943 76 13 49
Angiozarko medikua. 943 78 90 27
Antzuolako medikua. 943 76 62 23
Odol emaleak. 943 76 16 24
GARRAIOAK
Taxiak. 943 76 19 50
UDALA

Bergarako udaletxea. 943 77 91 00
Antzuolako udaletxea. 943 76 62 46
Udal Artxiboa. 943 77 91 32
Igerilekuak. 943 76 20 51
Kultur Etxea. 943 77 91 58
Liburutegia. 943 77 91 62
Kirolegia. 943 76 56 41
Mizpirualde Egoitza. 943 76 13 68
BESTELAKOAK

Epaitegia. 943 76 14 92
Erregistroa. 943 76 13 15
Jardun. 943 76 36 61
Idolaz. 943 76 65 08
Jubilatuena Etxea. Bergara. 943 76 21 40
Antzuolako jubilatuena elk. 943 76 62 71
Postetxea. 943 76 26 85
Bedelkar. 943 76 04 68
Akulu AEK. 943 76 05 18
Udal euskaltegia. 943 76 44 53
Bergarako notaritza. 943 76 10 73

zorionak!



Nora Blanco
21ean 3 urte.
Urte askotarako!
Aitona-amonak eta
osaba-izebak.



Paco Moreno
21ean 42 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Gorka Eraña
20an 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Maite Aranzabal
16an 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Naroa Odriozola
19an 11 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Asier.



Lide Madinabeitia
19an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Juan Luis Axpe
21ean 35 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Garazi Ibarra
16an 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Oihan.



Xabier eta Iker Aldai
17an urtebete.
Urte askotarako bikote!
Gurasoak eta amona.



Gorane Polanco
18an urtebete.
Urte askotarako!
Aitaxo eta amatxo.



Marina Iturriaga
17an 7 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak, Alazne,
Aitziber eta Miren.



Aitor Franco
15ean 7 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta
Ainhoa.



Ramon Madinabeitia
15ean 62 urte.
Urte askotarako!
Joanes eta Garazi.



Markel Muniategiandiakoetxea
18an 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Jesusa Urkizu
19an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Nerea, Jon, Josu
eta Garazi.



Andoni Garcia
15ean 10 urte.
Urte askotarako!
Tia Maite.



Andrea Martinez
20an Zurtebete.
Urte askotarako!
Gurasoak.

ADI!

*Hurrengo alean,
opor aurreko azkena denez,
abenduaren 22tik
urtarrilaren 11ra
bitartekoen zorion agurrak
argitaratuko ditugu.*

**Arantza
Erlojutegia**

*%25eko beherapena
denda ixteko*

Barrenkalea, 4. 943 76 10 04

Hasiera-hasieratik. Berrigarak, astero-astero, zintzo eutsi dio Bonofotoari. Argazkia eta horren gaineko galdera; guztiek parte hartzeko moduko lehiaketa. Eta jarraitzaileak ez dira gutxi. Miguel Angel Elkoroberezibarrek, Bonofotoaren egileak, Bergara ezagutzeko beste era bat dela dio.

G. BERRIGARAK bezala, hamar urte bete ditu Bonofotoak. Izan ere, hasiera-hasieratik egon den sail bakarretakoa dugu. Zein da iraupenaren zergatia?

E. Bonolotoa ere sortu berri zuten urte hartan eta hortik Bonofotoa izenaren hitz-jokoa. Gureak hainbeste sari banatzen ez dituen arren, bere erakargarritasunari eutsi dio urtez urte eta astero-astero.


Bergara ezagutzeko beste era bat da, etxe ezagun eta txoko ezkuetak tartekatzen dira, auzoetako baserri edota ermitak eta kaleko atariak; bateko eta besteko elkarte, inskripzio, irudi eta abar, ehunka argazkitan. Toki horiek ikustera joateko amua eskaintzen diot irakurleari, bere begien aurrean dagoenaz ohartaraziz.

G. Zure ardurapean egon da beti Bonofotoa. Zelan moldatu zara astero-astero herriko toki ezberdin bat aukeratzeko? Eta noski, argazkia ateratzeko?

E. Donostian bizi naiz orain, baina hamabostean behin gutxienez Bergarara etortzen gara eta orduantxe ateratzen ditut argazkiak hurrengo asteetarako. Oraindik erabili gabeko argazki pilo bat daukat, baina argitaratu aurretik ziurtatu beharra daukat ateratako tokiak edo etxeak bere horretan segitzen duten; izugarria da hain denbora laburrean

MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR
Berrigarako 'Bonofotoa' atalaren egilea

«Bonofotoarekin berria ezagutzeko amua eskaini nahi diet irakurleei»



Kamara eskuan duela, herriko txoko askotan ibili da Elkoroberezibar.

zenbat aldatu diren Bergarako bazterrak.

Eta argazkiok aldaketa horien testigu dira.

G. Zein irizpide erabiltzen duzu bai argazkia eta baita galdera ere aukeratzeko orduan?

E. Txandakatu egiten ditut argazkien edukiak: aste honetan baserria, hurrengoan irudi bat, eliza segidan...

«Meritu handiena erantzuna astero kutxan uzten dutenek dute. Nire aitona aipatu nahi nuke, dudan jarraitzailerik finena baita»

Saiatzen naiz auzoa eta kalea bereizten, urrunekoa eta gertukoa, ezaguna eta ezezaguna... Toki eta adin guztietako jendeak aukera berberak eduki ditzan. Galderrei dagokienez, galderan bertan zenbait datu eta informazio eskaintzen saiatzen naiz, ze garaitakoa den, historia aipamenak, eta abar. Horrek jantzi egiten du galdera eta pistak ere ematen ditu. Jeneralean, ez dira oso galdera zailak izaten.

G. Tranparik egin al duzu inoiz, hau da, argazkiak errepikatu?

E. Ez. Zorionez, Bergarak argazki askotarako ematen du. Edozein modutan, aspaldi ateratako pare bat jauregiren beste ikuspegi bateko argazkiak atera nituen, galderak zeharo diferenteak izanik.

G. Anekdotarik izango duzu. Antza denez gizon talde batek astero-astero galdera erantzuteko argazkiko tokiraino paseotxoaa egiten du.

E. Halaxe adierazi zidan baserriar batek, bezperan koadrilla bat etxe aurrean izan zuela azalduz. Baserriko izena ziurtatu eta parajeak ezagutu; astero leku desberdin batera. Ez da plan txarra.

Apusturik egin duenik ere bada Bonofotoaren kontura, eta baita etxetik atera gabe berriketarako gaia izan duenik ere. Erantzunarekin BERRIGARAKO egoitzara etorri gabe ere, jendeak parte hartzen du lagunartean edo familian. Baina, erantzuna BERRIGARAKO kutxan uzten dutenek dute meriturik handiena. Astero-astero zintzo datorren jendeak hain zuzen ere. Horien artean neure aitona aipatu nahi nuke, daukadan jarraitzailerik finena bera baita.

Gazte Informazio Gunea erabiltzeko ohitura sendotuz joan da 2000n

lazgo maiatzean ireki zuten. Hasierako hilabeteetan zerbitzua bera antolatu eta herriko gazteen artean ezagutzera emateko erronka zuen guneak. Aurten, 570 kontsulta jaso dira. Eraitza pozgarria arduradunen iritziz.

Gero eta gazte gehiagok ezagutzen dute eta baita erabili ere Gazte Informazio Gunea; izan ere, horrelaxe jaso dira kontsulta gehienak, aurrez aurre. Bestalde, telefono edota posta elektronikoz egindako kontsultak ere jaso dira.

Informazio eskaera horien artean bi izan dira nagusi: lana bilatzen ari diren gazteena, batetik, eta ikasketen inguruko informazioa nahi zutenena, bestetik. Horrez gain, bestelako kontsul-



Gazte Informazio Gunea Kultura Etxeko bigarren solairuan dago.

ARTXIBOA

tak ere jaso izan dira: turismoa, lanpostuak atzerrian, beka eta diru laguntzak, soldadutza, udalekuak..., garaian garaikoak, batez ere, Maider Sedano guneko arduradunak azaldutakoaren arabera.

Hilabete bakoitzeko kontsulta kopuruari errepa-

ratuz gero, otsailean (75) eta uztailean (79) jaso dira gehien. Gutxien, aldiz, abuztu (9) eta irailean (25).

TXARTELAK

Aipatutako 570 kontsulta horietatik, 123 bidaiatzeko txartela eskatu duten lagunenak izan dira: 88k aterpe-

kide txartela eskuratu dute eta 35ek txartel internazionala. Bidaiatzeko orduan erraztasunak ematen dituzten txartelak direla kontuan izanda, uztailean eskatu dira, batez ere. Bergarakoaz gain, Arrasate, Aretxabaleta eta Antzuolako jendea ere hurbildu da txartela eskuratzeko.

Horrez gain, udaleku eta trukaketan kudeaketaz arduratu da Gazte Informazio Gunea. Hori horrela, 570 kontsulta horiei udaleku eta trukaketarako izena eman duten 229 lagun gehitu behar zaizkie: 189, udalekue-tarako, eta 40, trukaketetarako.

Datu hauekin, pozik azaldu da Maider Sedano zerbitzuko arduraduna. Sedanoren arabera, gerturatu diren gazteak "zerbitzuarekin oso gustura daude".

Iñigo Alberdik zinegotzi kargua utziko du

Iñigo Alberdik urte amaiera arte jarraituko du karguan, baina Gabonen ondoren utzi egingo du. Izan ere, Kutxan hasiko da lanean eta ezin izango ditu bi lanak aldi berean egin.

Ordezkoari dagokionez, oraindik ez da jakinarazi

zein izango den. EAJ-EA alderdiak gaia aztertzen ari dira eta seguruenik datorren astean jakinaraziko dute zinegotzi berriaren izena. Kozalizioaren zerrendako hurrengo Xabier Zabaleta da.

Iñigo Alberdik 1999ko ekainaren 13ko udal hautes-

kundeen ondoren eutsi zion karguari. EAJ-EA koalizioaren zerrendan aurkeztu zuen bere burua. Ordutik hona, Kultura Batzordearen barruan dagoen Jarduerak, Taldeak, Gazteria eta Jaiak azpibatzerdeko buru izan da.



Iñigo Alberdi.

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerrek 13 behea ☎ 943 76 55 00



**Matxiategi
Elektragintza
S.L.**

**ELEKTRIZITATE
MATERIALEN
SALMENTA ETA
INSTALAKUNTZA**

Zurradero 8, behea. 943 76 19 94.

Erakusleiho lehiaketa, abian

Abian da Gabonetan Bedelkarrek eta udalak elkarlanean antolatzen duten erakusleiho lehiaketa. Herriko merkataritza denda guztiak aintzat hartuko dira lehiaketan, aurrez izena eman beharrik gabe. Erakusleihoak abenduaren 11 eta 28a bitartean prestatuta egon beharko dira. Sariak emateko orduan, publizitate mezuaren imajinazioa, originaltasuna eta eraginkortasuna hartuko dira kontuan, eta baita erakusleihoaren kalitatea ere. Erakusleihotan dendan saltzen diren ohiko artikuluak agertu beharko dira. Epaimahaiak abenduaren 22an jakinaraziko du erabakia. Bost sari egongo dira: 25.000 pezeta eta trofeoa bakoitzak. Informazio gehiago: 943 779158/779159 (Kultura Etxea); 943 760468 (Bedelkar).

sun hartuko dira kontuan, eta baita erakusleihoaren kalitatea ere. Erakusleihotan dendan saltzen diren ohiko artikuluak agertu beharko dira. Epaimahaiak abenduaren 22an jakinaraziko du erabakia. Bost sari egongo dira: 25.000 pezeta eta trofeoa bakoitzak. Informazio gehiago: 943 779158/779159 (Kultura Etxea); 943 760468 (Bedelkar).

AEKren aldeko kontzentrazioak

'AEK aurrera, euskara aurrera, erasorik ez' lelopean 60 lagun inguru elkartu ziren azaroaren 30ean San Martin plazan. Gaur, egubakoitza, arratsaldeko 7etan lelo bereko beste kontzentrazio bat dago deituta, San Martin plazan hori ere. Hilaren 22an hirugarren bat egongo da ordu eta toki berean.

Bestalde hilaren 16an Bilbon euskal hezkuntzaren alde egingo den manifestaziora joateko Arrasateko AEK euskaltegiak autobusak antolatu ditu.

Bestalde hilaren 16an Bilbon euskal hezkuntzaren alde egingo den manifestaziora joateko Arrasateko AEK euskaltegiak autobusak antolatu ditu.

San Joxeperen ekitaldiak Gabonetan

Erretiratuen elkarteak hainbat ekitaldi antolatu ditu Gabonetarako. Hilaren 19an Gabonen eta bakearen inguruko hitzaldia eskainiko du Xabier Andonegik Miguel Altunan, 19:30ean. Abenduaren 21ean Santamas eguna ospatuko da egoitzan eta 31n opariak banatuko zaizkie bertako kideei.

Bestalde, *2000 Gabonak* programa antolatu du Gizartekintzak bakarrik edo bikotekidearekin bizi diren 65 urtetik gorakoendako. Gabonzaharra eta Eguberria bakarrik igaro beharrean, taldean egon nahi duten pertsonei zuzenduta dago. Horretarako, aipatutako datak Donostiako Igeldo hotelean igarotzeko aukera eskaitzen du Gizartekintzak. Izena erretiratuen egoitzan edo 900 434343 telefonoan eman beharko da. Azken eguna abenduaren 18a da.



Azaroaren 30ean egindako kontzentrazioan 60 lagun inguru bildu ziren.

Bergara ez agutzen 2001

- 14-18 urte bitartean izanez gero, anima hadi!
- 10-15 laguneko taldeak osatu behar dira
- Galderak, proba grafikoak eta jokoa
- 2001-eko otsailaren 2an hasiko da, eta ostiralero, arratsaldeko 7,30ean Kartzela Zaharrean jokatu da.
- Irabazleek **astebukaera bat pasatuko dute aterpetxe batean natur kirolak praktikatu.**
- **Izen ematea JARDUNen:**
kartzela zaharra. Bergara.
Telefonoa: 943 76 36 61/76 08 19.
Azken eguna, abenduaren 19a izango da.



Antolatzailea:



Laguntzaileak:



Bergarako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Epaitegia euskalduntzeko plataforma aurkeztu dute

Justizia administrazioan euskaldunon hizkuntza eskubideak bermatzeko plataformak joan den egubakoitzean egin zuen aurkezpena. Plataforma AEK, EHE eta Jardun euskara elkarteak sortu dute eta helburua honakoa da: euskararen normalizazio bidean justizia administrazioak pausoak eman ditzala eskatzea.

Aurkezpenean esandakoaren arabera, justizia administrazioak ez ditu euskaldunen eskubideak bermatzen, nahiz eta EAEn euskara hizkuntza ofiziala izan. Plataformako kideen esanetan, justizia administrazioan ez da euskara eginpide gūztietan erabiltzen: "Euskara bigarren mailan dago", eta ondorioz, herritarrek gaztelaniaz jardun beharra dute herriko epaitegian. Egoera horren aurrean, eta Bergaran bailara osoa hartzen duen epaitegia dagoela kontuan izanda, AEK, EHE eta Jardun elkar-



EHE, Jardun eta AEKko ordezkariak plataformaren aurkezpen egunean.

teak plataforma sortzea erabaki dute Euskal Herriko beste herri batzuetako ekimenei jarraiki.

HAINBAT ATXIKIMENDU

Herriko hainbat talde, erakunde, ikastetxe eta banakoren atxikimendua lortu du plataformak. Besteak beste, Abokatu Euskaldunen Elkartearena, udalarena eta Bergarako Kirol Elkartearena; guztira, hamabostetik

gora. Atxikimendua adierazi duten guztiek aurrerantzean Bergarako epaitegiarekin izango dituzten harremanak euskaraz izateko konpromisoa hartu dute. Plataformaren helburua justizia administrazioak euskararen normalizazioan urratsak ematea izanik, zazpi oinarri jarriko dituzte abian aipatutako administrazioeko langile eta esparruak euskalduntzeko.

Erretzeari lagatzeko ikastaroa antolatu du Gizarte Ongizateak

Udaleko Gizarte

Ongizate sailak jarri du abian ikastaroa. Urtarrilaren 16an hasi eta otsailaren 20a arte iraungo du. Martitzenero izango da, Kultura Etxean, eta saio bakoitzak ordubeteko iraupena izango du; guztira, sei ordu. Hiru talde antolatuko dira: 15:30etik 16:30era, 16:45etik 17:45era eta 18:00etatik 19:00etara. Izena emateko, banatu den esku orria bete eta udaleko Ongizate zerbitzura eraman beharko da, 1.000 pezetarekin batera. Izena emateko azken eguna urtarilaren 5a izango da. Toki mugatuak daude.

Iaz antolatu zuen lehenengo ikastaroa Gizarte Ongizate sailak. Hogeita bat lagunek eman zuten izena eta 15ek erretzeari lagazioten Gizarte Ongizate saileko iturrien arabera.

ARDATZA

Brikolaketa

Ateak eta zokaloak
Horma armairuak
Sarrailak eta manilak
Koadroen enmarkazioak
Era guztietako moldurak
Apalak
Kajoiak

Masterreka 4 behea
☎ 943 76 18 93

SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK

AGENTEA

Ramon Maria Lili, 6-behea
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Telefonoak: 943 76 23 30 • 943 76 41 54
Faxa: 943 76 41 54
ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera:
9.00-14.00 eta 16.00-20.00
Larunbatetan: 9.00-13.00

IRAEGI
ASEGURUAK

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrial

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 666 517 295

Larkano

KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK

Barrenkalea 15-17. BERGARA.
Tf. 943 76 25 03

Berrigara

433 zenbakia.
2000ko abenduaren 15a.

Irizar jauregia. Barrenkalea 33.
20570 Bergara.
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta elektronikoa:
berrigara@topagunea.com
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi, Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Uxue Zabaleta.
Harpidetza: Nerea Lazpiur.
Testuen zuzenketa: Sergio Azkarate.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate, M. Angel Elkorobereibar, Alex Labaien, Estepan Plazaola.
Komikiak: Unai Azkarate, Oihan Vega, Usoa Mendikute, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.
Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre, Antxon Agirre Sorondo, Juan Martin Elexpuru, Gorka Ugarte.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azala: M. Agirrerren 'Napoliko jokalaria', 'Artistas vascos en Roma' liburutik.

Tirada: 5.400 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Bergarako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jauriaritzako Kultura saila

atrebentzia ezpada

Gabonetako erosketak noiz egitten ditzuzu, azken egunetan ala aurreratzeko ohituria daukazu?



Silvestre Begiristain

Hemendik aurrera hasten gara, azkeneko egunetara itxoin barik. Bai erregaluak baita jana be.



Joseba Ugarte

Jeneralian Gabonetan egitten ditzugu. Dana dala, erregalu batzuk lehenago erosten ditzugu, bizpahiru egun lehenago edo.



Leire Alegre

Itxoin egitten dogu Gabonak arte. Bai erregaluak erosteko orduan, baita janarixa be.



Esteban Azkarate

Gauza batzuk lehenago erosten ditzugu, baiña gehixenak azkeneko egunetan, nahiz eta ohitura txarra izan.



Bittori Bakaikoa


Saiatzen naiz azkeneko momentura arte ez itxoi-tzen, baiña pasatzen da zer edo zer ahazia edo azkeneko momentukua izatia.



Antonio Taboada

Nik ez dot erosketarik egitten, amak egitten dittu. Eta ez dot uste azkeneko momentura arte lagako dittuanik erosketak.

tira biraka alex ugalde



adituen esanetan

Legionelosisia

Azkenaldian, komunikabideetan asko entzun den gaitza da legionelosisia. Hala ere, ez dut uste kezkatzeko arrazoirik dagoenik, kasu konkretu batzuk besterik ez baitira, eta inola ere ez epidemia bat.

1977. urtea arte ez zen gaixotasun hau ezagutzen. Philadelphia izan zen lehen kasua.

Orduan, gaixotasun hau bakteriatzuk sortzen zutela jakin zen, legionela izeneko bakteriatzuk, hain justu. Bakteria hauen artean garrantzitsuenak legionela pneumofila izenekoak da.

Bakteria hau airean dago, baina hazetasun handia dagoen tokietan bizi da, eta birsortu ere. Arnasaren bitartez hartzen da gaixotasuna. Ahotik ez da hartzen; hau da, ura edateagatik ez dugu gaixotasuna hartuko.

Adina, sexua eta osasun egoeraren arabera, gaixotasuna hartu eta garatzeko arriskua handiagoa edo txikiagoa izango da. Arrisku handiena dutenak 50 urtetik gorako gizonezkoak dira. Gainera, erretzen dutenek eta alkohola asko edaten dutenek ere arrisku handiagoa dute. Bestalde, defentsa baxuak dituztenek ere arrisku handiagoa dute.

Gaixotasun honek gorputzean eragiten duena ohiko pneumoniaren antzerakoa da, eta oso gogorki. Birikengan eragiten du, eta hiltzeko arrisku handia



JUAN MARI IRIZAR


Medikua

"Asko erre eta edaten dutenek, defentsa baxuak dituztenek eta 50 urtetik gorako gizonezkoek arrisku handiagoa dute"

sortzen du. Datuen arabera, gaixotutakoen %20 inguru hiltzen dira. Hala ere, badago pontiac izenarekin ezagutzen den gaixotasun hau azalazteko beste era bat ere. Pontiac era ez da legionelosi pneumotikoa bezain arriskutsua.

Sintomei dagokierik, ondoez orokorra, buruko min handiak, muskulu-tako minak, eztul lehorra eta sukar oso handiak daude. Bi edo hiru egunetan areagotu egiten dira sintoma guztiak. Sendabide moduan antibiotikoak erabiltzen dira.

Hau ekiditeko Sanitateak hartzen dituen neurriak, ura kloroarekin tratatzea, ura berotzea edo mugiaraztea izaten dira, legionela bakteriatzuk hiltzeko.



Legionela bakteriatzuk, legionelosisia eragiten duena. ARTXIBOEA

bergarako errota



TROSKAZULO ERROTA

1905eko GAO:

"On Prudencio Alberdi bergararrak eskaria egin du segundoko 8 litroko ur-emia jasotzeko Urola ibaiko ibaiadar den Troscas-zulo errekatik; 62,52 metroko jauzia dauka eta Bergarak du bere eskumena. Ur hori argindarra lortzeko nahi du, egunen batean bertan egingo den errota batendako."

Uren desbideratzea Zubi-arri zubipean egingo da: Azkoitiatik Zumarragara bidetik kilometro batcra kokatua dago; buztin-hodi batzuen bidez ura eramango da ur-bartunetik 100 metrora dagoen depositu erregulatzailer batera.

Depositutik, eta hodi gogor batzuen bidez, urak bideratuko dira makinietxeraino: etxe hau Elozu-echeverri baserriko lursailetan eraikiko da. Lur baten jabeek beharrezko baimen guztiak dituzte.

Urak aipatutako Troscas-zulora bideratuko dira berriro, urok erabiltzeko beharrik ez dagoenean.

"Langileak ezartzea eskatzen da..."

Urtebete geroago, 1906an, obren-baimena ematen zaio.

Troskazulo-errotaren azken errota Luciano Alberdi izan zen. 1961. urte aldera errota horretan ehotzeari utzi zioten.

"Errekaundi" urez baliatzen zen. Errota erreka horren ezkerrean zegoen. Bi burdin-errodete zeuzkan bi harri mugitzeko.

Errota izateari utzi zionean zentral elektriko bihurtu zen inguruko baserriak hornitzeko. Gaur egun lau baserrik bakarrik erabiltzen dute zentral horretako energia.

Cortaberri baserritik 500 metrora dago. Baserri horretako jabeek sistema berezia zeukaten errota martxan jartzeko: baserri barrutik, hainbat kable eta polea erabiliz, errotaren ateak zabaldu eta abiarazten zuten, baserritik irten barik.

KOKAPENA: Errekalde auzoan, Aizpurutxutik igota, Cortaberri baserritik 500 metrora.

Antxon Agirre Sorondo

Txirrinduzaleen bazkaria

Txirrindularitzako hainbat **lagunek**, urtero bezala, **bazkaria egin zuten joan zen abenduaren 5ean** Ortziz jatetxean. Argazkian, zutik: Iñigo Txaurreau, Alfredo Martinez (sendagilea), Jon Odriozola, J. M. Ezeiza (DV txirrindularitza), German Garate (epailea), Unai Osa eta Josetxo Sudupe (epailea). Makurtuta: Miguel Elortza, Aitor Osa, Jose Luis Bolinaga (Euskal Bizikletako antolatzailea), Antxon Eizagirre (sendagilea), Josu Ruiz eta Antxon Elortza (DVko antolatzailea). Jarrita: Jose Luis Aizpurua (Ortziko nagusia).



KINU

Txolartek lokal berria

Txolartek lokal berria inauguratu zuen hilaren 1ean. Txolarteko **bazkideak, begiraleak eta gurasoak** eta Atzegiko lehendakari **Jose Luis Zaldúa, Esther Larrañaga** Gizartekintzako zuzendaria eta **Victoriano Gallastegi** alkatea han izan ziren. Aisialdi taldearen helburua pertsona hauek bizitza sozialean present egotea da. Martokoko eskolatxoetako lokala, beraz, urritu psikikoendako topagune eta aisialdirako gun e izango da.



JUAN ANTONIO MIGUÑA

Gazteak, euskararen alde

Urtero bezala, **Euskararen eguna ospatu zuten Mariaren Lagundia ikastolan** joan den abenduaren 1ean. DBH eta Goi Mailako Heziketa Zikloko ikasleek euskararen aldeko konpromisoa hartu zuten. Dokumentu hori irakurri ondoren, argazkian ikus daitezkeen moduan, **hainbat joku** egin zituzten ikastetxeko jolastokian: sokatira, zaku lasterketa eta kaskara jokua. **Txistor jana** ere izan zuten. Eta hau guztia, nola ez, **trikitiaren** soinuaz lagunduta.



**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA



Silvestre Muñoz, s.l.
pinturak

Pintura-lanak
orokorrean

Pintura industrialak

Zoru arinak:
sintasolak, moketak...

610 25 99 82 / 610 25 40 37
943 76 24 11

Amillaga 1, 10 pabiloia. 20570 BERGARA

**ETXAGI
JATETXEA**

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 943 76 53 12

**PISZINETAKO
TABERNA**

Bokadiloak
Pintxoak
Kazuelitak

Boni Laskurain z/g
Tf. 943 76 53 55



PINTURAS BERGARA S.L.

• INDUSTRIARAKO PINTURAK
• GARBIKETAK

• APAINKETARAKO PINTURAK
• ERROTULOAK

Aranerreka 32 behea. BERGARA. Telefonoa: 943 76 10 65. Faxa: 943 76 11 40.

Urcelay harategiak helburu bakarra du:

KALITATEA



Gure Kalitatea



Urcelay harategian, txahalak geuk hazten ditugu. Konfiantza osoa izan dezazun. Horregatik daukagu "Giokela" ezaugarria.



Urcelay
HARATEGIA

Bertan ditugu gabonak!

Olentzero Eguna, abenduaren 24an

11:00etan eskolan elkartuko gara. Ibilbidea: Poligonoa-Frontoia-Simon Arrieta-San Martin plaza

● **Gurasoen entseguak:** kankak ikasteko abenduaren 14, 19 eta 21ean elkartuko gara ikastetxeko areto nagusian, 18:30ean.



● **Irratsaio bereziak:** abenduaren 18, 19, 20 eta 21ean 13:15ean gabon kankak entzuteko aukera izango dugu Eskola Irratian (f.m. 108.0)

● **Gabonetako jaialdia:** abenduaren 21ean arratsaldeko 15:15ean areto nagusian Haur Hezkuntzako ikasleek eskainiko dute jaialdia. Denok zaudete gonbidatuta!



SAN MARTIN AGIRRE

herri ikastetxea

B. Laskurain, 25. Tel. 943 76 21 47
182 posta kutxa

20570 BERGARA

Loramendi kirolak

www.loramendikirolak.com
San Andres eta Garibain, Arrasaten

INTERSPORT®



SNOW

Tabla + fijazioak.....	25.995.-
Botak.....	12.995.-
Snow eskularruak.....	6.495.-

ESKI

HEAD tablak + fijazioak.....	29.995.-
Salomon botak.....	17.995.-
Goretex eskularruak.....	4.995.-

Eskiak konpontzen ditugu.

kontuola...

KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazetariak: Marijo Deogracias eta Ainhoa Ugarteburu **Publizitatea:** Uxue Zabaleta **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarría, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 69. zenbakia. 2000ko abenduaren 15a.

Larru ontzearen gaineko ikerketa

Domekan aurkeztuko da Antxon Aguirreren azterketa lana

Domekan aurkeztuko dute Antzuola Herria ikerketa bekaren hirugarren liburua. Larrugintzaren gainean egindako ikerketa da eta Antxon Aguirre Sorondok idatzi du. Aurkezpena udaletxeko areto nagusian izango da 12:30ean.

Antxon Aguirre Sorondo Eusko Ikaskuntzan etnografoa da, baina baita historialaria ere. Beste gai batzuen artean larrugintzaren gaia interesatzen zaio. Horregatik erabaki zuen Antzuolako Udalak antolatzen duen ikerketa bekara aurkeztea. Izan ere, urteetan larrugintzaren gaineko dokumentu asko bildu ditu. Berak dioen moduan, «nik dokumentu ugari nuen, baina enkargatu edo eskatzen ez dizuten bitartean, ez du merezi libururik idazterik; lan asko egiten duzu, eta gero, agian ezin daiteke argitaratu».

Antxonek larrugintza orokorrean aztertu bazuen ere, Antzuolako larrugintzari buruz bazuen informazioa: «datu historikoei begiratu gero, ikus daiteke 1914ko Gipuzkoako datuetan agertzen dela larrugintzari buruzko informazio ugari, baina jakina, liburua moldatzeko, lan handia egin behar da: artxibategietara joan, orduak sartu datuak bilatzen... Lan etnografiko garrantzitsua ere egin behar da eta azken larrugintzaileekin egotea posible bada, hori ere egin beharrekoa da».

LAN HISTORIKO-ETNOGRAFIKOA

Lanak bi zutabe nagusi ditu. Alde bate-tik, etnografikoa, hau da, herriko jendea- rekin egon, euren iritzia eta bizipenak ja- so; kaleko lana, azken batean. Bigarre- nik, lehen aipatu duguna, lan historikoa, hau da, lan dokumentatua.



Telleria lantokian 1936. urtean. ARG.: «ANTZUOLAKO LARRU ONTZEA» LIBURUTIK

Bekadunaren hitzetan, «lan kolekti-boa izan da, Iñigo Ramirez de Okarizek asko lagundu dit lan horretan. Bera izan da nire euskarria. Ni donostiarra naiz, eta ez nuen antzuolarrik ezagutzen. Berak asko lagundu dit norekin berba egin behar nuen jakiten eta baita argazkiak aurkitzen ere. Lanaren egilea ni izan arren, lan kolektiboa dela aitortu behar dut: maketzailea, elkarrizketatuak eta laguntza eskaini didaten guztiak kon- tuan izan behar ditugu eta».

Larrugintzari buruz zera dio: «Ant- tzuolan arrakasta izan zuen, lantegiak bata bestearen atzetik sortu ziren. Garai ona bizi izan zuten, baina gero desager- tu egin ziren larrugintza lantegiak». Libu- ruari dagokionez, oso liburu atsegina de- la dio. «Ez dago zertan hasi eta bukatu; ez du irakurketa lineala eskatzen libu- ruak. Argazki zahar oso interesgarriak jaso ditut larrugintzaren garapena zein izan zen erakusteko eta kontu eta anek- dota ugari ere badaude». ■

■ ■ ■
Antzuola Herria Ikerketa bekak larrugintza
aztertu du eta domekan aurkeztuko da
■ ■ ■

Bertso afaria zapatuan Gaztetxean

Gaztetxean bertso afaria egingo dute zapatuan, abenduaren 16an. Urtero antolatzen dute Gaztetxean horrelako afariren bat, eta aurten bertsolariak hauek izango dira: Xabier Sukia oriolarra, Arkaitz Ugartetxea zaldibartarra eta Ibon Karrera "Tolosa" tolosarra. Debatar bat ere ba omen dator. Samuelek eta Jon Gurutzek panderoa eta soina joko dituzte.

Jende dezente espero da. Eguaztenean 73 lagun zeuden izena emanda.

Afaria 21:30ean izango da. Menua, berriz, entsalada eta oilaskoa, eta posterako gazta, irasagarra eta intxaurreak. Eta, jakina, kafearekin kopa eta purua ere izango dira! Dena, 1.500 pezetan.

Adierazi digutenez, mahaietara aterako da afaria, baina jasotzeko laguntza eskatzen da.



Bertsolariak eta trikitilariak egongo dira Gaztetxean.

Arangurenen aldeko bilkura egin zen

Juan Ramon Aranguren joan den asteko astelehenean izan zen Madrilero Auzitegi Gorenean deklaratu. Jakina denez, Baltasar Garzon epaileak AEKren kontra irekitako sumarioan Juan Ramon Aranguren antzularra inputatu zuen.

Beraren aurka eta AEKren aurka irekitako prozesua salatzeko protesta egin zen Herriko plazan joan den asteko astelehenean.

Jende dezente elkartu zen ordu laurdenez iraun zuen bilkuran. Herriko plazan eta Zurrategin egin zuten protesta.



ANTZUOLA

Apainketak eta isola-
menduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
Tf.: 943 72 30 05
Biltegia: 943 78 70 40

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tf.: 943 76 64 23

GOROSTI Taberna

☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA



Eskolako neska-mutikoek egingo dute Santo Tomas feria. JUAN CRUZ ARGAZKIAK

Santo Tomas eguenean

Abenduaren 21ean, eguena, Santo Tomas feria egingo da herrian. Herriko Eskolakoek urtero antolatzen dute Santo Tomas feria eta aurten ere horixe egingo dute. Herriko plazan izango da, baina eguraldi txarra egingo balu, pilotalekuan jarriko dituzte animaliak.

Herriko neska-mutikoek ekarriko dituzte abereak: katu, untxi, oilo eta abar. Baina ez dira bakarrik abereak egongo; barazkiak ikusteko aukera ere egongo da eta. Hauek ere gaztetxoek ekarriko dituzte etxetik, eta, hori gutxi balitz, opilak, erroskilak eta antzeko goxoak ere izango dituzte erakusgai.

2000 EGUERRIAK PROGRAMA

Bakarrik edo bikotearekin bizi diren 65 urtetik gorakoentzat Eguberria Programa antolatu du Gizartekintzak. Gabon egunak Donostian igarotzea eskaintzen du programak, Igeldo hotelean: Gabon gaueko afaria eta gaua batetik, edo Gabon gaueko afaria, gaua eta Natibitate eguneko bazkaria bestetik. Izena ematen dutenek, euren diru sarreraren arabera prezioa ordaindu beharko dute. Zenbat ordaindu behar den jakiteko, edo informazio gehiago nahi izanez gero, udaletxeko gizarte laguntzailerengana jo. Izena emateko, berri, Bergarako San Joxepe elkartera jo, abenduaren 18a baino lehen.

MUSIKARI GAZTEEN KONTZERTUA

Datorren abenduaren 22an, eguakitzean, musikari gazteen kontzertua izango da zinetokian. 19:00etan izango da emanaldia eta Musika Eskolakoak eta Jon Gurutzekin dabilzan trikitilariak izango dira kontzertuan.

Santa Zezilia arrakastatsua

Zine aretoa jendez bete zen joan zen asteko domekan, Santa Zezilia eguneko kontzertua ikusteko. Herriko txistulari taldea, Antzuolako abesbatza eta Bergarako udal bandako metal boskotea izan ziren kontzertuan. Egitaraua, berri, honakoa izan zen: *Alkate soñua, Pil-pil, El tilo, Hiru damatxo, Gozo, Ederra, Segurako goiza, Kantuz, Xalbadorren heriotzean* eta *Euskal musikaren gorespena*.



Igor eta Txomin



Margoak orokorrean

ANTZUOLA
609 157 131

BERGARA
609 150 164



Zabalo Iturgintza S.L.

Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea 10. Tf. 943 78 71 78

Erakusketa: Kalebarren 1. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haize egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak

- Bero-urreztea
- Bainugelak. Proiektuak momentuan egiten ditugu DIBaren bidez
- Birgaitze-espedituek bideratzen ditugu

Mikel Araiztegi, pintura irakaslea

«Margo figuratiboa lantzen dugu»

Mikel Araiztegi da olio-pintura ikastaroko irakaslea. Bergarar horrek ia bi urte daramatza Antzuolan pintura ikastaroak ematen. Aurten, iaz baino jende gehiago ari da ikastaroan: guztira, 15 pertsona. Ikastaroak kurtso osoa irauten du, hau da, urritik ekainera arte. Astean behin elkartzen dira Errekaldeko gelan: eguaztenero 18:30etik 20:30era.

Zer da olio-pintura?


Olio materiala da, margotzeko erabiltzen dena. Berezko ezaugarriak dauzka, izan ere, ez da berdina akuarelan edo olioan margotzea. Guk, hemen, olioan egiten dugu.

Olioan margotzea, erreza da?

Hori bakoitzaren araberakoa da, baina egia esan, ez da teknika erraza, ikasi beharra dago. Hala ere, ez dago teknika berezirik ikasteko, nik irakastea erabiltzen dudana teknika neurea da.

Zelako ikasleak dituzu?

Denetarik dago; gehien bat emakumeak badira ere, adin guztietakoak etorri ohi dira: gazteagoak eta baita nagusiagoak ere. Adin kontuan, erdi eta erdi etortzen da, gutxi gorabehera.



Eguaztenero elkartzen dira Errekalde bi ordutik.

Ikastaroa bukatu eta gero, erakusketaren bat egiteko asmorik baduzue?

Iaz erakusketa bat egin genuen, baina aurten ez dakit zer egingo dugun. Litekeena da aurten ere erakusketa bat egitea. Hau, jakina, ez dago nire eskutan; ikastarora etortzen direnek esan beharko dute euren lanak erakutsi nahi dituzten.

Zer margotzeko da egokiena olioak?

Olio teknikaren bidez edozer gauza margotu daiteke, baina guk, batez ere, figuratiboa lantzen dugu, hau da, paisaiak, pertsonak eta gauzak, alegia.

Gustura zabilzate ikastaroan?

Bai, ni irakasle moduan gustura nabil eta ikasleak ere oso motibaturik daudela esango nuke. Giro ona dago taldean. ■

Gaztainerre eguna

Udazkenero bezalaxe, aurten ere ospatu zen, joan zen azaroren 26an, gatzainerre eguna. Eguraldiak ez zuen gehiegi lagundu, baina, hala ere, deialdia arrakastatsua izan zen eta jende asko gerturatu zen gatzainak jan eta Bidaurreko sagardoa edatera.



KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07


Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Zoruen kutxilatu eta barnizaketa •

GAILUR

taberna eta gozotegia



Buzinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apainketarako eta industrialarako pinturak •
- Paper margotuak •
- Moketak eta tapizatuak •

BICIPRECISIÓN IGARTUA

Zubieta, 5-7. 9 posta kutxa, 20570 Bergara. Telefonoa eta faxa: 943 76 11 21, sakelakoa: 689 76 11 21



Kirol guztietarako balio dute! **Nobedadea!**

THETWE **zuntz iraultzaile bat** da; neguko **arropa termikoak** egiteko erabiltzen da. Bero handiagoa, baina pisu handirik gehitu barik. Hezetasun ezabatze gutxienekoak erosoago eta sikuago sentitzen lagunduko ditu. Horrela, baldintza txarretan ere, hotzeria izateko arriskua txikiagoa izango da. THETWE **malgutasun handiko zuntza** da eta, horregatik, arropak gorputzera egokitzen dira. **Leuna eta arina** da, eta garbigailuan ere sar daiteke.

Era guztietako opariak Igartuan!



Patineteendako garantia eta ordezko piezak



2.595 pta

3.150 pta

Neska-mutikook, hemen dira Gabonetako ekitaldiak!



2000.12.17, igandea
Kukubiltxo taldearen "TXIRRIKIZ" antzerki ikuskizuna.
18:00etan Udal Pilotalekuan



2000.12.24, igandea
Olentzerok umeen kartak jasoko ditu.
19:00etan San Martin plazan.



2000.12.26, 27, 28 eta 29
Gabonetako haurren jolas parkea.
Agorrosingo igerilekuetan eta Labegaraieta kiroldegian.



2001.01.05, ostirala
Bizar zurik umeen kartak jasoko ditu. 18:00etan.
Errege kabalgata. 19:30ean San Martin plazan.



BERGARAKO UDALA



HURBIL
Zerbitzu Informatikoak, S.L.
INFORMATIKA

ELGOIBAR 20870
San Inazio, 4
195 Posta-kutxatila
Tel. 943 74 08 50
Fax: 943 74 29 16
E-posta: belgoibar@datalogic.es

BERGARA 20570
T. Aranzadi, 3
Tel. 943 76 91 27
Faxa: 943 76 93 25
E-posta: hbergara@datalogic.es

HEZIKETARAKO TEKNOLOGIA

MERKATARIENTZAT HASTEAREN DAUDEN IKASTAROAK:

- **DISEINU GRAFIKOKO IKASTARO BEREZIAK**
Freehand, PageMaker, QuarkXpress...
- **DISEINU TEKNIKOKO IKASTARO BEREZIAK**
Autocad I-II, SolidEdge I-II...
- **ORDENAGAILUEN TEKNIKARIA**
Hardwarren osagaiak, Grabadoren erabilera ...
- **OFIMATIKAKO TEKNIKARIA**
Windows 98, Word 2000, Excel 2000...
- **INFORMATIKAKO OPERADOREA**
PC-ra sarrera, Windows 98, Word 2000...

Larunbatetan irekita!!
Ordutegia: 9:00etatik-22:00etara

**Ikastaroak zure ordutegira moldatzen dira eta maila guztiertzako eskaintza. Ikastaroen bukaeran diploma emango dizuegu.*

KONEKTA ZAITEZ



SARTU

eta informatuko zaitugu

— **disdira** —

Aurrerantzean, betiko lekuan gaituzu:

Masterreka, 7. Ongi etorri, denoi!

Telefonoa: 943 76 00 55

Ondo pasau Gabonak!

Tasio Otero Leongua da izatez, baiña zortzi urte daroia Bergaran bizitzen. Ezkonduta dago eta bi seme-alaba dauzka. Orain dala hamahiru urtetik, Bergaran lan egitten dau ONCEko kupoia saltzen.

Zelatan leondar bat Bergaran?

Lanera etorri nintzan; lehenengo Lasartera, gero Oreretara, eta azkenian, Bergarara.

Noiztik zabiltz hemen lanian?

Lanian orain dala 13 urtetik; Bergaran bizitzen, berriz, orain dala zortzitik.

Egunian zenbat kupoi saltzen dozu?

300 inguru; eguakitzetan, berriz, *kupona-zoa* dala eta, 1.200 bat saltzen ditut.

Sekula emon dozu saririk?

Egixa esan, oso gutxitan.

Emon dozun haundixena?

100.000 pezetakua.

Zeuk jokutzen dozu?

Bai, egunero kupoi bat, eta loteria primitiboan eta bonolotuan be jokutzen dot.

Loterixia tokatu ezkeru, zer egingo ziñuke?

Lanari laga eta bizi.

Ze garaittan saltzen da gehixen?

Udaberri aldian; garai honetan, zozketa asko egoten danez, gutxiago saltzen da.

Zertan lan egin nahi ziñuke?

Ni lehen arotza nintzan, eta gustatuko jaten ebanista moduan-edo lan egittia.

Zubixan norabait jua zara?

Bai, Real Madrilen partidua ikustera.

Denpora librian zer egittia gustatzen jatzu?

Etxian egotia, oso etxezalia naiz; baiña *hobby* bat be badaukat: txorixak haztia.

Zenbat txori dauzkazu?

40 bat txori dauzkat etxian.

Tasio Otero

Ze txori gustatzen jatzu gehixen?

Kanarixua, oso ondo kantatzen dabelako.

Ze musika mota gustatzen jatzu?

Bakalaua eta musika mobidua asko gustatzen jat.

Pelikula bat? -

Ez nuke jakingo bat esaten, baiña akziozkoak gustatzen jat.

Ze aktore dozu gustuko?

Arnold Schwarzenegger.

Irakurtzeko ohitturirik badaukazu?

Ez dot bape irakurtzen.

Umetako oritzapenik polittena?

Lehen jaunartzia egin nebanekua.

Eta txarrena?

12 urterekin, jolasian nenbilela, kohete batek eztanda egin eta eskua galdu nebanekua.

Iñoiz egin dizuten oparirik polittena?

Nere seme-alabak.

Eta zeuk egin dozun azken oparixa?

Nere semiari ordenadoria erosi jat.

Egunkarixa, irratixa ala telebista?

Egunkarixa egunero erosten dot, baiña kirol egunkarixak bakarrik. Telebista asko gustatzen jat.

Urte barrixari zer eskatuko zontsake?

Orain arte moduan jarraitzia, eta bakian bizitzia.



Ugarrixa merenderoa

Elosuko bidean
BERGARA
943 76 28 92



GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro 8 Tf.: 943 76 27 70 BERGARA

JULIAN JIMENEZ **JUAN DOMENECH**



marketeria



pintura

NAHIKARI taberna
Masterreka 20 Tf. 943 76 57 71

HAU ETA 1. ZKA - LUIS ROMERO DE AGUIRRE, SENDIAREN ARTXIBOA.




Martzial Agirre gogoratu

Bergarar eskultorearen inguruko erakusketa ikusgai udaletxean

Maiatzean 100 urte bete ziren Martzial Agirre hil zela. Gaur, egubakoitza, irekiko da udalean erakusketa bat bere lanekin. Bergararontzat *Doña Justa*, Bergarako epaitegiko eskultura, izango da ziurrenik eskultore bergarar honen lanik ezagunena, baina eskultura asko eta garrantzitsuak egin zituen.

Argazkiak, 'Artistas vascos en Roma' liburutik.



"Galiarra hiltorian" erakusketara ekarri da, Gipuzkoako Foru Aldundiak lagata.

Juan Martzial Agirre Lazkano 1843an jaio zen Bergaran, Algodoneran, hain zuzen ere. Aita, Joakin Agirre, Algodonerako akzioduna zen, eta hantxe bizi ziren. Baina, enpresaria izateaz gain, oso eskultore ezaguna zen. Martziallek aitarengandik ikasi zuen lanbidea. Orduak pasatzen zituen aitaren alboan piezatxoak egiten. Txiki-txikitatik erakutsi zuen eskulturarako berezko sena.

AGIRRE, ERROMARA BIDEAN

1864an Erromara abiatu zen ikastera. Martzial Agirrereren helburua marrazketa teknikak hobetu eta eskultura-materialak hobeto ezagutzea zen. Horretarako, Toglietti eta Obici maisu neoklasikoen artisau tailerretan aritu zen ikasten. Gauez marrazketa eskoletara joaten zen, irudien diseinuak zehaztasunez egiten ikasi nahi zuen eta. Ezkondu ere Erroman ezkondu zen, 1868an, Liviana Wittmerekin, Johan Michael Wittmer pintore aleman ezagunaren alabarekin.

LEHEN URRATSAK ETA ARRAKASTAK

Lagun ugari egin zuen Agirrek Erroman; hala nola, Palmaroli, Fierros edo Fortuny. Baina, bere lagunik minena Eduardo Rosales pintore madrildarra izan zen.

1864an bertan, *Ehiztaria* eskulturarena Madrileko Erakusketa Nazionalera bidali eta 3. mailako domina bat jaso zuen. Sari horrek asko lagundu zion bere burua ezagutzera emateko. Handik bi urtera egin zuen *Pilotaria* estatua ere aipatzekoa da. Bergaran bisitan



**Sukaldeak.
Horma armairuak.
Neurrira egindako
altzariak.
Ateak eta leihoak.
Arozlanak.**

BERGARA ☎ 943 76 58 86



GAZTELU
BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

egon zen batean, frontoira joan eta hainbat bozeto egin zituen, gero eskultura naturalista hau egiteko.

ENKARGU UGARI

1870ean egin zuen, Erroman zegoela, bergarar gehienontzat bere lan ezagunena den *Justizia* eskultura, *Doña Justa* bezala ezagunagoa. Udalak eskutatuko lana izan zen. Ordutik, Bergarako epaitegian dago, zaindari. Garai hartan lan asko egin zuen enkarguz. *Napoliko jokalaria* (azalean) ere 1870ean egin zuen.

Urte hartan bertan, 1870ean, Batikanoaren I. Kontzilioa egin zen; hori zela eta, Pio IX.aren estatua bat enkargatu zioten. Estatua hau Erromako Erakusketan aurkeztu zuen, eta Urrezko Domina jaso zuen Aita Santuaren eskutik.

DONOSTIARA LANERA

Esan bezala, gero eta ezagunagoa zen Martzial Agirre eskultore bezala, eta ge-

ro eta enkargu gehiago jasotzen zituen, bai Erroman bertan, baina baita Euskal Herrian ere. Horregatik, 1875ean Donostiara etorri zen bizi izatera.

Donostiako Jauregi Probintzialerako hainbat gipuzkoar ospetsuren bustoak egin zituen frontisean jartzeko: Urdaneta, Lezo, Legazpi... Frontiseko goiko pisuan, berriz, probintziako armariaren bi Herkules erraldoiak.

Gipuzkoako hainbat pertsonaiaren estatuak ere egin zituen: Loiolako San Inazio, Txurruka itsasgizona edota Urbieta kasu.

Okendo almirantearen eskultura ezaguna ere, Donostian dagoena, egin zuen. Nahikoa buruko min eman zion lan honek. Izan ere, bukatzeaz zuela hausia egin zitzaion eta arazo ugari izan zituen horregatik.

Eskultura hura bukatu eta denbora gutxira hil zen, duela mende bat; 1900eko maiatzaren 10ean hil zen, hain justu, Donostian bertan.<



1. 'Okendo almirantea' (1895). 2. 'Napoliko jokalaria' (1870). 3. 'Loiolako San Inazio' (1867). 4. 'Justizia' (1870).

Erakusketa udaletxean hil bukaerara arte

Martzial Agirre hil zela 100 urte bete direla eta, erakusketa bat antolatu dute Udalak eta Filatelia eta Numismatika taldeak. Erakusketa hau gaur, egubakoitza, arratsaldeko 7etan irekiko da. Udalean bertan, eta ordu horretan, Emilio Mujika bergararrak hitzaldia eskainiko du Agirreri buruz. Hilaren 28a arte egongo da zabalik, astegunetan, arratsaldeko 6etatik 9etara, eta zapatu eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara eta arratsaldeko 6etatik 9etara. Gipuzkoako Foru Aldundiak *Galiarra hiltzorian* eta *Pio IX* eskulturak

utzi dizkio udalari erakusketarako. San Telmo museotik ere eskultura bat eta margolan bat ekarri dituzte: Inazio Etxaidearen bustoa eta Eduardo Rosalesek egindako Martzial Aguirreren erretratua.

Bere lana eta familiari buruzko argazkiez osatutako 4 panel ere jarri dira. Baita bere objektu pertsonalak erakusteko bi bitrina ere, domina, dokumentu eta abarrek.

Eta bukatzeko, Filatelia eta Numismatika taldeak ikusgai ditu zilarrezko txanponak, eskultoreen irudiek.



Gozogintzan
aintzindari.

- X Ezkontzak
- X Bataioak
- X Jaunartzeak
- X Enpresa bazkariak eta lagunartekoak
- X 150 lagunendako jangela



PARKINA ETA TERRAZA
BASTER-ALDE
J A T E T X E A

Galartza auzoa • ARETXABAETA
Tf.: 943 79 24 58

MUJIKA
Jantxidenda

Barrenkalea 1. Tf: 943 76 29 91

DENA
100etik

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta 3

Bergara eta Egiaren arteko eskubaloi partidua domekan

Senior mutilen eskubaloi taldeak partidu erabakiorra jokatuko du domekan, hilaren 16an, Egiaren aurka, Labegaraietan, eguerdiko 12:15ean. Bi taldeak berdindurik daude sailkapeneko bigarren postuan, Ormaiztegi liderraren atzetik. Edu Orgazek entrenatzen duen taldea denboraldi ona egiten ari da eta domekan aukera paregabea izango du bigarren postua eskuratzeko. Horretarako ezinbestekoa izango da garaipena lortzea. Joaneko partiduan, Donostian, bergararrek 11 goleko aldearekin galdu zuten. Hala ere, Orgazek posible ikusten du domekan irabaztea: "gure jokoa egiten badugu aurrera atera dezakegu partidua.



Argazkian, senior mutilen eskubaloi taldea.

Talde gero eta hobeto ikusten dut eta guretako oso inportantea da Egiari irabaztea, ligako lehen bi postuetan sailkatu eta bigarren nazional mailara igotzeko ligaxka jokatu ahal izateko".

Bergarak ez du partidu erreza izango eta zaletuen laguntza beharrezkoa izango da. Azken jardunaldian Urrietari 18-27 irabazi zioten mahoneroek. Aurtengo ligan bi partidu besterik ez dituzte galdu, Egi eta Lei-

tzaran taldeen aurka. Bergara eta Ormaiztegi liderraren arteko partidua atzeratu egin zen eta ziurrenik Gabonetan jokatuko dute elkarren aurka, hilaren 23an.

KADETEAK 2. FASEAN

Eskubaloiarekin jarraituz, kadete taldeak Urolaren aurka jokatuko du domekan, 10:45ean. Edu Eguren, Aitor Ibarra eta Edu Iñarra hirukoteak entrenatzen duen taldea bigarren fasean ari da jokatzen, lehenbizikoan 6. postuan sailkatu ondoren. Aurreko jardunaldian bergararrek 19-15 irabazi zioten Egiari, Bergaran. Bigarren fase honetan Bergarak ez luke arazorik izan behar aurrealdean sailkatzeko.

Txomin Lete Euskadiko ehiza txapelduna

Txomin Lete bergararrak Euskadiko Ehiza Txikiko Txapelketa irabazi zuen azaroaren bukaeran, Zambranen, Araban. Txomin Letek Antzuolako Eperra elkarteak ordezkatu zuen betaranoen mailan eta, "Mendi" txakurraren laguntzaz, txapela eskuratu zuen.

Hamabi lagun izan ziren lehiari eta partaideek eperrak eta faisanak harrapatu behar izan zituzten. Aurretik, Txomin Letek Gipuzkoako txapelketa ere irabazi zuen bigarren aldiz jarraian. Gipuzkoako txapelketa ere Zambranen jokatu zen azaroaren 5ean.



Pilotalekua eta tenis pista

Udal Kirol Zerbitzuak jakinarazi duenez, datorren urtean Angiozar, Elorregi, Osintxu eta Zabalotegiko pilotalekuak edo tenis pista erreserbatzeko eskaerak aurkezteko epea abenduaren 22ra arte izango da zabalik, Udaletxean bertan.

IBARGYREN PENTSYAK

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

LONBIDE OINETAKOAK

Bidekurutzeta 5
BERGARA
☎ 943 76 10 57



JOSEBA HERRAN/ Pilotaria

"Atzealdean hobeto nabil eta nire jokoa egiten ahaleginduko naiz finalean"

Joseba Herranek (17 urte) Gipuzkoako klubaren arteko txapelketako finala jokatu du gaur, eguakitzan, Arrasaten, Intxaurrondoko Yuberoren aurka, gazte mailan. Nahiz eta ligaxkan Yuberori gailendu ezin, txapela janzteko itxaropena dauka Herranek.

G. Finalera helduta, txapela eskura daukazu...

E. Zaila izango da irabaztea. Bergaran 22-21 galdu nuen Yuberoren aurka eta Intxaurrondon, berriz, 22-13. Hala ere, posible ikusten dut txapela irabaztea. Ea partidu ona egiten dudan finalean. Partidu gogorra izango da, ziurrenik.

G. Zelan planteatuko duzu partidua?

E. Bera aurrean moldatzen da ondoen. Kolpe handirik ez dauka, baina bi eskuakin ondo dabil. Ni, aldiz, atzealdean hobeto ibiltzen naiz eta nire jokoa egiten ahaleginduko naiz, pilota atzera bidaliz, bera nekatu

eta huts egiteko asmoarekin.

G. Zure ezaugarriak nabarmena?

E. Pilota indarrez jotzen dudala, beharbada. Eskuinarekin hobeto ibiltzen naiz, baina ezkerrekin ere nahiko ondo defenditzen dut.

G. Zelako pilotak atsegin dituzu?

E. Pilota biziak, bote handia dutenak.

G. Entrenamendu berezirik egin duzu finalera begira?

E. Ez, orain arte bezala. Astelehenetan 3. mailako futbol taldearekin entrenatzen naiz, Igor Gutierrezen aginduetara, fisikoa lantzen; eta eguaztenetan frontoian ibiltzen gara. Kadetetatik, Reyes Azkoitia da nire entrenatzailea.

G. Euskal ligarako ere sailkatu zara...

E. Bai, ligaxkako lehen biak sailkatu gara Euskal Liga jokatzeke eta ahalik

eta aurrean sailkatzeke aha-
leginak egingo ditut.

G. Binaka ala banaka gusturago?

E. Banaka, nahiz eta gogorragoa izan. Binakako txapelketak ere gustatzen zaizkit. Joan zen urtean Joseba Orgazek eta biok Debako finala galdu genuen Soraluzeren aurka.

G. Gustuko pilotari bat?

E. Beloki.

G. Zeinek irabaziko du lau t'erdiko txapelketa?

E. Eugik, azkarra delako eta Nagore baino hobea delako.



karteldegia

FUTBOLA

Bergara-Lagun Onak

Ohorezko kadeteak. Zapatua, 11:00. Ipintza

Bergara-Baskonia

Hirugarren maila. Zapatua, 15:30. Agorrosin

Bergara-Almen

Infantilak. Zapatua, 17:30. Ipintza

Bergara-Soraluze

Bigarren mailako kadeteak.

Domeka, 11:00. Ipintza

PILOTA

Bergara-Hernani (2. mailako kadeteak)

Bergara-Altzatarak (lehen mailako jubenilak)

Bergara-Goierri (2. mailako seniorrak)

Bergara-Zazpi Iturri (lehen mailako seniorrak)

Bihar, zapatua, 10:00etan Udako Pilotalekuan

HERRI MAILAKO TXAPELKETAKO

FINALERDIAK

Martitzenezan, 18:00etan, Udako Pilotalekuan

PROFESIONALAK

Berraondo-Irigoien/Xala-Apeztegia

Etzaniz-Otxandorena/Olaizola I.a-Berna

Haritz-Almandoz/Camarero II.a-Sukia

Bihar, zapatua, 17:00etan Udako Pilotalekuan

Karatekak Zaragozara

Goju-Ryu karate taldeko Inigo Ugarte, Unai Garmendia, Jose Luis Martinez eta Oskar Torresek astebukaera honetan Zaragozan jokatu den Espainiako arte martzialen txapelketan hartuko dute parte, senior mailan. Salva Gonzalez da entrenatzailea.



ARRI

Industri hornidura

Zubiaurre, 30
Tf. eta faxa: 943 76 19 04.
Sakelakoa: 656 78 64 84.



Asteburuetan bertako babak eta saiheskia

SALBADOR 10 ELGETA
Tf. 943 76 82 73


Sendabelarrak Dietetika



Aukera biologikoa!

- Prebentzio neurriak osasunari begira.
- Elikagai biologikoak : barazkiak, frutak, esnea, lekariak...
- Kontsultak
- Sendagile naturista: zirkulazioa, erreuma, kolesterola...
- Pisuaren kontrol pertsonalizatua: koipe eta likidoen neurketarekin.
- Masajista

Irala z/g. 943 76 30 08



Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32



ETOR LASKURAIN
BKEko jokalaria

Azkenaldian jokaturako hiru partiduetan garaipen bakarra lortu dugu, Zallaren aurka. Bizkaitarren aurka partidu ona egin genuen Agorrosinen eta, nire ustez, hiru puntuak merezita lortu genituen. Hala ere, azken bi neurketetan ez gara fin ibili: joan zen eguaztenean, Durangon, 2-0 galdu genuen eta zapatuan Lagun Onak taldeak 0-2 irabazi zigan. Aurtengo denboraldian etxean galtzen dugun lehenbiziko partidua.

Durangon, lehen zatian, bi gol egin zizkiguten (nahiko eztabaidagarriak biak ere) eta, egia esan, gu baino askoz hobeto jokatu zuten. Bigarren zatian aurrera egin arren, ezin izan genuen ezer positiborik lortu.

Zapatuan, berriz, baja asko genituen eta taldeak igarri egin zuen. Azpeitiarrak ez zuten ezer berezirik egin garaipena eskuratzeko, baina zortea alde izan zuten eta hiru puntuak eraman zituzten.



- Zallaren aurkako partiduan honako jokalariek hauek nabarmendu genituen:
- Koldo Erostarbe**.....3 puntu
 - Markel Egaña**.....2 puntu
 - Etor Laskurain**.....Puntu 1
- Lagun Onak taldearen aurkakoan hauek nabarmendu ditugu:
- Txonan Gallastegi**.....3 puntu
 - Koldo Erostarbe**.....2 puntu
 - Jose txo Lizarralde**.....Puntu 1

Etxeko partiduak bakarrik hartzen dira kontuan.

Labegaraietako futbito txapelketa

EMAITZAK

A MULTZOA

Apa Oxemai-Eri	4-8
Errotagain-Bar Ugarte	1-3
Amoskibar-Buya	9-2
Fac-Bildurbarek	3-5

B MULTZOA

Suntsitzailak-Manitou	4-8
Amilotox-Tom Cat Argandolas	3-3
Aterpe-Kanpazar	2-2
Ortzi-Agirrebeña	8-3
Vacalouras-Etegabe	0-3

C MULTZOA

A Ze Flaxa-Artusamak	12-3
Komando Piperrak-Patxaran	3-0
Shaktale-Txipiron	5-5
Guadalest-Latex	10-0

PARTIDUAK

ZAPATUAN BARRUAN

9:30: Amilotox-Manitou	Shaktale
10:30: Shaktale-Komando Piperrak	Amilotox
11:30: Torrekua-Apa Oxemai	Buya
12:30: Buya-Fac	Apa Oxemai

DOMEKAN BARRUAN

9:30: Txipiron-Mongatxurak	Agirrebeña
16:00: Ortzi-Tom Cat Argandolas	Canalejas
17:00: Bar Canalejas-Pagomendi	Irubide
18:00: Eri-Irubide	Bayer
19:00: Bayer-Vacalouras	Mo(ko)lotov
20:00: A Ze Flaxa-Mo(ko)lotov	Vacalouras

DOMEKAN KANPOAN

10:30: Etegabe-Agirrebeña	Txipiron
11:30: Patxaran Team-Guadalest	Etegabe

ARGI!

Bi talderi zigorra

Patxaran Team eta Vacalouras taldeei euren partiduak galdutzat eman zaizkie (3-0) fitxarrik gabeko jokalaririk aurkezteagatik. Bestalde, gauza bera gertatu zaio Bayer taldeari Manitouren kontra jokatu zuen partiduan. Manitouri barkamena eskatu dio antolaketa, hasieran taldea arrazoi beragatik zigortu zuelako.

Gabonetan jai

Datorren astean, Gabonak direla eta, ez da txapelketarik izango. Hurrengo jardunaldia urtariraren 13an jokatu da.

Guadalest, Amoskibar, Bar Ugarte

Bar Ugartek Errotagain iazko ligako txapelidunari irabazi zion (3-1). Amoskibarrek Buya mendean hartu zuen eta Guadalestek erraz irabazi zuen.



GORA eta BEHERA



Artusamak, Latex, Buya

Artusamakek lan gutxi eman zion A Ze Flaxa liderrari (3-12). Latexek 10 gol jaso eta bat ere ez zuen egin. Buyak 9 eta 2 galdu zuen Amoskibarren kontra.

SAILKAPENA

A multzoa

	P	J
1. Bar Ugarte	27	10
2. Pagomendi	22	9
3. Bildurbarek Opel Lam	19	10
4. Errotagain	19	10
5. Bar Canalejas	19	9
6. Amoskibar	15	10
7. Fac	10	9
8. Eri	9	9
9. Apa Oxemai	7	9
10. Buya	7	10
11. Irubide jabetxea	4	9
12. Torrekua	3	9

B multzoa

	P	J
1. Aterpe	28	10
2. Ortzi	22	9
3. Manitou	19	9
4. Kanpazar	19	10
5. Tom Cat Argandolas	17	9
6. Pinturas Bergara	13	9
7. Amilotox	13	9
8. Bayer	6	9
9. Vacalouras	4	9
10. Suntsitzailak	4	9
11. Etegabe	4	8
12. Agirrebeña jabetxea	0	8

C multzoa

	P	J
1. A Ze Flaxa	21	9
2. Mongatxurak	21	8
3. Artusamak	16	8
4. Komando Piperrak	16	9
5. Guadalest	15	9
6. Shaktale	13	9
7. Mo(ko)lotov	10	8
8. Ezinleike	9	7
9. Patxaran Team	7	9
10. Txipiron	4	7
11. Latex	-1	9

Informazio hau babesle hauei esker:

OGIZUN

koop. elk.
okindegia



San Pedro 21 Zubillaga z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13



Irizar 2

☎ 943 76 14 95

JAUJA KIROLAK

GASTON Y DANIELA



Inglesina®



Kruz Gallastegi 3 **BERGARA** ☎ 943 76 07 37

Banatzaile ofiziala



Material onenekin gozatzeko

trang●world



LOWA
...simply more



Recommended for
GORE-TEX
Footwear

BOLINTXO

KIROLAK

Ibargarai, 10. 943 76 38 32



MIGUEL ANGEL ELKOROBEBEZIBAR

bonofotoa

Zein da Olan dagoen etxe honen izena?

galde debalde

1. Zenbat lagunek utzi zioten erretzeari Udalak iaz antolatutako ikastaroan?

- A- 15ek
- B- 21ek
- C- 20k

2. Zein urtetan burutu zuen Martzial Agirrek *Doña Justa* eskultura?

- A- 1870ean
- B- 1900ean
- C- 1888an

3. Nork zuzendu du Kukubiltxoren 'Txirrikiz' antzezlanaz?

- A- Iurgi Etxebarria
- B- Josu Camara
- C- Jabier Obregon



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria **Jon Lazkanoren**tzat izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Joni! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Espoloian eta Elorregin** Galde Debalde: **1-A, 2-B, 3-C**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____

Telefonoa: _____

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Delfin
OTARRAINSKAK, 1 zkl.,
800 gr.ko kaxa

2.295 PTA!

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

Kukubiltxoren 'Txirrikiz' azken lana Udal Pilotalekuan

Arrazakeria salatu eta berdintasunaren aldeko lana da

Errose Bustintza "Mañariko" ren ipuin batean oinarritu da Larrabetzuko taldea antzezlanaren sortzeko. Euskal ipuin zaharra gaurkotu, eta arrazakeriaren arbuioa eta berdintasuna ditu ardatz antzezlanak. Emanaldia zapatuan, hilak 16, izango da 18:00etan.

Duela ehun urte Errose Bustintza "Mañariko" idazleak sortutako ipuin batean oinarritzen da Kukubiltxo taldearen lana. *Txirrikiz*, protagonista, neska etorkina da. Egun batean, neska-mutiko batzuegana hurbildu, eurekin jolasteko, eta horietako baten, Peliren, barre eta isekak jasoko ditu. Hortik abiatuta, gaur egungo arrazakeriaren aurka eta berdintasunaren alde egingo du larrabetzuarren azken lanak. Helburua da magia, jolasa eta musikaren bitartez neska-mutikoei arrazakeriaren aurkako mezua helaraztea.



Kukubiltxoko aktoreek antzezlaneko panpinei bizitza ematen diete.

Taldearen ohiko ildoari jarraiki, musikak eta dantzak garrantzi handia dute 'Txirrikiz' ikuskizunean.

Musika Bixente Martinezek ipini du, eta interpretazioaz Oskorri musika taldea arduratu da.

Aktoreak Marifeli Etxeandia, Josu Camara, Katrin Schlegel, Iurgi Etxebarria eta Javier Obregon dira. Zuzendaria, berriz, Josu Camara da.

Jardunen 10 urteak ospatzeko ekitaldiak

Jardunen eta BERRIGARAREN 10. urteurrena. dela eta, hainbat ekitaldi antolatuta ditu euskara elkarteak urtemuga ospatzeko. Gaur, egubakoitza, umeentzako jolasleku ibiltaria egongo da 17:00etatik 18:30era, eta 22:30ean, Doro ipuin kontalaria eta Rita La Arrabalera, Zabalotegiko aretoa. Bihar, zapatua, 16:00etatik 20:00etara, txokoka erakusketa, Jardunek antolatutako ekitaldi, ikastaro eta beste-lakoen erakusketa, gaztainta erreak eta Urbeltz taldearen kontzertua; hori guztia, San Martin plazan. Zapatuan, eguerdi eta arratsaldean, Jarduneko trikiti eskolako ikasleek kaleak alaituko dituzte.

Bergara ezagutzen lehiaketa abian

Izena emateko epea abenduaren 19a arte egongo da irekita. 10-15 lagunez osatu behar du diru taldeak. Izena Jardunek Kartzela Zaharrean duen egoitzan eman beharko da; edo, ondorengo telefonotan: 943 76 36 61/ 943 76 08 19.

Errenteria Musikalen kontzertua

Errenteriako Musika Eskolan bibolin, biola eta biolontxelo ikasten ari ziren ikasleek sortu zuten ganbera-orkestra hau 1989. urtean. Taldea sortzeko helburua ikasleei taldean jotzeko aukera eskaintzea izan zen, euren ikasketak sendo-

tzeko asmoz. Orduetik hona, hainbat kontzertu eskaini dituzte Euskal Herrian, Estatuan eta baita Frantzia ere. Bergarako Orfeoiaekin ere kolaboratu dute. Eskainitako kontzertuen artean hauek aipatu daitezke: Portugalgo Lousada hiriko au-

ditoriumeko inaugurazioan eskainitakoa, Musikaste 96 eta 99an eskainitakoa eta baita Europako Parlamentuan eskainitakoa ere.

Bergaran bihar, zapatua, eskainiko du kontzertua arratsaldeko 7etan Santa Marina parrokiaren.

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6 Tf. 943 76 56 62

Sukaldeko altzarien eta horma-armairuen fabrika

Super Armeko

- Lantegiko prezioak
- Erakusleku handia: 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Nobedade denak

Kataide poligonoa, 6.pabilioia.
ARRASATE. 943 71 25 08



Santa Luzia ospatzen, 1955

E guaztenean, abenduaren 13an, Santa Luzia eguna ospatu zen. Jostunen patroia dugu Santa Luzia eta emakume askok eta askok ospatzeko ohitura daukate oraindik ere. Astebukaera honetan ere lagunarteko makina bat afari izango dira aitzakia hori hartuta. Goiko erretratua 1955. urtean ateratakoa da eta ber-

tan Mujika sastreriako tailerrean ari zirenak ikus ditzakezue mahai baten bueltan Santa Luzia ospatzen. Orduko sastre eta jostunek ere ez zuten hutsik egiten eta afari-merien-datxo bat egiten zuten beraien eguna ospatzeko. Honako hauek dira argazkian poz-pozik agertzen direnak, ezkerretik eskumara:

Zutik: Xabier Mujika, Maite Mujika, Maria Errasti, Markos Mujika, Lide Mujika, Joseba Aiestaran eta Nere Mujika.

Aurrerago: Martina Arraiago, Ramonita Abad (biak jarrita), Kontxi Arantzabal, Candida Larrañaga eta Josebe Lete.

Argazkia: Xabier Mujika

ADI!

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Irizar jauregian gaituzu, zatoz!

- L** Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
- L** Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!
- L** Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!

LARRAÑAGA
A U T O E S K O L A

Tf. 943 76 16 63

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldearen erreforma,
pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59



zumelaga

JATETXEA

58 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25



OMU
ZERAMIKAK

Zeramika,
arte unibertsala



GRUPO



**Amuebladora
Mondragonesa**

a eme Interiores
Garibai 9. 943 79 15 03

Centro Hogar Muebles
Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 77 14 92

Sofa Leku
Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 76 15 03

a eme Sukaldeak
Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 77 14 92

ARRASATE



Berrigara



10 urte




Araba Etorbidea 5 •
Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Araba etorbidea 20 •
Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



Asunción, 1 •
Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

expert 



Mitarte 3 •
Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

FAGOR 

50 urte

gure bezeroen zerbitzura.

Eskerrik asko emandako konfiantzagatik



Eskerrak denoi

Hamar urte bete ditu Berrigarak eta astekaria aurrera ateratzeko laguntza eman izan diguten guztiei eskerrak emateko beharrea gaude. Hasierako proiektu hura haziz joan da eta hamargarren urteurrenarekin batera, etapa berri bati ekin dio Berrigarak bailarako beste aldirietekin batera. Helburua beti ere gure irakurleei hurbileko informazioa euskaraz helaraztea izango da, modurik ahalik eta erakargarrienean, kontuan hartuz gertuko informazioak, zuzenki afektatzen gaituenak hain zuzen, gero eta garrantzi handiagoa duela. Ikusi besterik ez dago herri aldirietan Euskal Herrian izan duten hazkundera.

Edu Mendibil

Edu Mendibil, Berrigarako zuzendaria

Berrigara 10 urte

433 zenbakiarekin batera banatutako gehigarria. 2000ko abenduaren 15a.

Argitaratzailea: JARDUN Elkartea. **Zuzendaria:** Edu Mendibil. **Erredakzioa:** Monika Belastegi, Aintzane Irizar, Eneko Azkarate, Edu Mendibil. **Diseinua:** Iñaki Iturbe. **Maketazioa:** Edurne Arenaza. **Publizitatea:** Uxue Zabaleta. **Testuen zuzenketak:** Estepan Plazaola, Sergio Azkarate. **Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Zubillaga, Oñati). Tirada: 5.425 ale. Copyright: BERRIGARA. Lege gordailua: SS 50/91. ISSN: 1130-6599. BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldirietan adieraztako esanen eta iritzien erantzukizunik. **Erakunde hauen laguntza:**



Bergarako
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaurlaritzako
Kultura saila

AURKIBIDEA

ZORIONAK BERRIGARA!

Herritarrak Berrigara zoriontzen. 5

HAMAR URTERI ERREPASOA

Albisteak, esandakoak eta pertsonaiak. 11

DENBORAREN KAPSULA

Hamarkada bateko aldaketak herrian. 27

AZALA MAMI

32 azal esanguratsu. 32

NOR IZAN DA?!

Langileak eta korabolatzaileak. 35

ALBUMA

Berrigara eta Jarduneko argazkiak. 39

BERRIGARA HERRI ALDIRIEN

TOPAGUNEAN

Berrigara herri aldirien artean. 47

IRAGARKIEI TARTE BAT

Publizitatea eta Berrigara. 53

EUSKARA HAMAR URTEOTAN

Euskararen bilakaera Bergaran. 57



**EAJ
PNV**

Zorionak Berrigarari 10. urteurrenean

BULEGOA

Tf. eta faxa: 943 76 47 00

TABERNA

Tf. 943 76 49 33

San Pedro 4, BERGARA

J A N T Z I D E N D A

LASAGABASTER

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55




ETXE APAINKETA

Zorionak Berrigara!

Hamar urte beteta, hainbat herritarren zorion agurrak jaso ditu Berrigarak. Bakoitzak bere arrazoiak ditu aldizkaria zoriontzeko. Hona hemen belarritik tira egin digutenak.



Mikel Lizarralde
Itsaso Mendizabal
Julen Narbaiza



Martin Garitano
Juan Luis Bikuña
Eneko Oregi



MIKEL LIZARRALDE. Euskaldunon Egunkariko kazetaria. Zorionak, hamar urtez euskara hutsezko aldizkaria egin duzuelako; zorionak, bergararren herri informazio egarria asetu duzuelako; eta, batez ere, BERRIGARA ostiraletan erreferentzia nagusi bihurtu delako. Zorionak, eta beste horrenbeste urte bete ditzazuela.

ITSASO MENDIZABAL. EHE Zorionak, BERRIGARA, herritarren artean euskararen erabilera bultzatzeko bide egokia delako; hala ere, euskararen inguruko gai eta arazoak gehiago azaldu beharko lituzke”

JULEN NARBAIZA. Bedelkarreko presidentea. “Hizkuntza asko desagertzeaz ei dago munduan eta gutxi batzuk bakarrik biziraungo ei dute. Egoera horretan euskarazko aldizkari batek 10 urte betetzea zoriontzeko modukoa da”.

MARTIN GARITANO. GARA. Gure herritik kanpo bizi garenontzat erabat beharrezkoa bihurtu zarelako, zorionak BERRIGARA. Gure istorio txikiak garrantzitsu bihurtu dituzulako, zorionak BERRIGARA. Adierazpen askatasunaren ispilu izan zarelako, zorionak Berrigara.

JUAN LUIS BIKUÑA. ETBko aurkezlea. “Zoriontzekoa da BERRIGARAK gure historia, pertsonai eta kultura ezagutzeko emān digun aukera ederra hamar urte hauetan. Benetan eskertzekoa da horrelako saiakera”.

ENEKO OREGI. Hezkuntza Sailburuordea. “Hamar urteko bizialdian aurrerapen dezente egin du BERRIGARAK, herritarren babesari eta bertako langile eta laguntzaileei esker. Bata eta bestea areagotzen jarrai dezala opa diot, zinez.”

Agustin Aranzabal
Ainara Lete
Juan Carlos Larrañaga



Jose Luis Elkorro
Victoriano Gallastegi
Estepan Plazaola



Mikel Irizar
Itxaro Aranzabal
Fran Iturbe



AGUSTIN ARANZABAL. Errealeko jokalaria. BERRIGARA hamar urte bete dituelako zoriondu nahi dut. Urte askotarako.

AINARA LETE. Argazkilaria. "BERRIGARA eskertu nahi nuke, herriko eta kanpoko jendearen lana ezagutzera eman duelako, batez ere arte mailan".

JUAN CARLOS LARRAÑAGA. Enpresaria Zorionak BERRIGARA, 10 urteotan, eta eguakitzero, Bergara eta bergararren kezka eta berrietara hurbildu gaituzulako.

JOSE LUIS ELKORRO. Bergarako Alkatea duela hamar urte. "BERRIGARAK herria aberastu du, komunikazioaren bidez herritarrok elkartzen gaitu, eta, aurrerantzean, jarduera berriak abiatzeko prestatuta dago. Zorionak".

VICTORIANO GALLASTEGI. EAJ. Bergarako Alkatea. "Eragundeen ikuspuntutik oso garrantzitsua da informazioa euskaraz jasotzea. Denbora aurrera doa eta egitasmo eta helburu berriak daude. Une hau aprobetxatuz, zorionak


eman nahi dizkizuet BERRIGARA aurrera ateratzeko lagundu duzuen guztioi".

ESTEPAN PLAZAOLA. Udaleko euskara teknikaria. BERRIGARA garatu da, eta eman du lorea, lorea eta hazia, GOIENKARIA. Hazitik... egunkaria?. Zorionak Jarduneko denoi.

MIKEL IRIZAR. Goienako zuzendari nagusia. Hamar urte, *berri gara/* urte berrian, goiena/ goienberri, elkarkari/ berrigoienkarigara

ITXARO ARANZABAL. Jarduneko kidea. Orain dela hamar urte euskara hutsean idatzi zen astekari baten aldeko apustua egin zenuten. Lortu duzue! Zorionak, BERRIGARA.

FRAN ITURBE. Musikoa. Gezurra dirudi, baina hamar urte pasatu dira. Gogoan dauzkat hasiera haiek; orain, herri al-dizkariak ugaltu eta erreferentzia bihurtu dira, ezinbestekoak gure inguruko berriak jakiteko. Euskalgintzaren alorrean eredu izaten jarraitu ezazue. Zorionak eta urte askotarako!



Hamargarren urteurren honetan,
Berrigarari,
urte askotarako
eta Berrigara egin duzuen guztioi,
zorionak.



BERGARAKO UDALA
ZURE ZERBITZURA

**Asier Altuna
Pello Garitano
Kontxi Kortazar**



**Miren Azkarate
Markos Labaien
Mikel Laskurain**



**Jose Luis Garitano
Agustin Toledo
Maite Irizar**



ASIER ALTUNA. Zinegilea. BERRIGARAN agertu ez den bergarar bakarra topatu nuen lehengunean. Beraren berri ez nuela emango promesa egin nion. Zorionak!

PELLO GARITANO. Lokatza. "Herrian gehien irakurtzen dena da, eta hala baldin bada, zerbaitegatik izango da. Gainera, denborarekin asko irabazi du. Etxian, semiak ale guztiak gordeta dauzka; pentsa zenbat gustatzen zaigun!"

KONTXI KORTAZAR. Sukaldaria. Euskararen normalkuntzan beste pausu bat ematen lagundu diguzuelako, eskerrik asko!

MIREN AZKARATE. Euskaltzaina eta EITBko euskara teknikaria. 10 urte haundi dagoeneko! Segi beste 10, 20, 30 urtean herriko berri emoten, lehengo kontuak eta gaurkoak, danak jasotzen; zahartutakoan be BERRIGARA eskutan euki nahi nuke-eta.

MARKOS LANBAIEN. San Joxepe Elkartekoa. Aurtengo abenduan/ditut berri onak/BERRIGARAK hementxe/bete di-

tuanak/hamar urte honetan/egin ditun lanak/horregatik hemendik/nere zorionak.

MIKEL LASKURAIN. Aktorea. Zorionak. Hamar urte egin badituzue, honezkero betiko izango dogu. Eta eskerrik asko, kanpoan bizi garenok be Bergarako berri izaten dogulako.

JOSE LUIS GARITANO. Enpresaria. Aldizkari bezala bete duen 10. urteurrenean, eredu eta inbidia izanik Euskadiko herri guztientzat. Jarraitu konstanteki eta etengabeko hobekuntzan lan eginez, orain arte egin duzuen bezala.

AGUSTIN TOLEDO. Dordoka kirol elkartekoa. Zorionak BERRIGARA Dordoka Kirol elkartetik. Zorionak Dordokako kirolari guztien partetik.

MAITE IRIZAR. Mendizalea. Zorionak hamar urte hauetan egindako lanagatik, eta gutxienez beste hamar urtean segi dezazuela, orain arte bezala, mendizaletasuna bultzatzeko informazioa ematen.

Estella ortopedia

Javier Estella, ortopedia teknikari tituluduna
OSAKIDETZAREKIN ETA LAGUN AROREKIN HITZARTUA

Matxiategi 5, Telefonoa: 943 76 19 63



Ondo pasa
dezazuela
denok!

Kirol
Ortopedia



Etixerako
laguntza
teknikoa



Mastektomiak

Neurrira eginiko
plantillak.
Oinetakoak



Opel Corsa berria



DISEINUA ETA PRESTAZIOAK BATEGINIK

OPEL

TALLERES **OLA**

TAKOLO AUTOAK, S.L.

Olabarrena auzoa z/g
Tel.: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47 • BERGARA

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN
Araba etorbidea 3 (Eskatu pabilioia) • Tel.: 943 79 05 86

HAMAR URTERI

Ez da erraza 10 urte hauetan Bergaran gertatutakoaren errebasoa orri gutxi batzuetan biltzea. Ezta bergarar batzuk nabarmendu eta beste batzuk kanpoan lagatzea ere.

Edozelan ere, hona hemen guk egindako aukeraketa.

ERREPASOA



BERGARAKO UDAL AGIRITEGIA. BKE. ARIZ-ONDO ALDIZKARIKO FONDOA

Hertzainak Txibiston

Laurogeiko hamarkada-ko azkenetan eta 90eko hasierako urteetan rock musikaren erreferentzia izan zen Txibisto dantzalekuan zuzeneko diskoa grabatu zuen Hertzainak taldeak **1991ko urtarrilaren 18**

eta 19an. Txibisto dantzalekuak 1991ko abenduaren 14an itxi zituen ateak, baina urte batzuk geroago, **1997ko urrian**, Jam aretoak hartu zuen lekukoa. Euskal Herriko musika aretorik garrantzitsuenetakoa da Jam.

Gallastegi Bergarako alkate berria



HB lau urtez alkate-tzan izan ondoren, EAJk irabazi zituen **1991ko maiatzeko** Udal hauteskundeak. Aste batzuk geroago, uztailearen 5ean, Victoriano Gallastegik Jose Luis Elkorordezkatu zuen alkatetzan. HB, alkatetza galdu arren, Batzar Nagusietarako indar botatuena izan zen Bergaran. Victorianok **1995eko eta 1999ko** Udal hauteskundeetan ere irabazi zuen. Azkenengoetan EAJk eta EAK zerrenda bakarra aurkeztu zuten hauteskunde-etara.



Kilometroak 91

80.000 bat lagun elkar-tu ziren Bergaran **1991ko urriaren 6an** Kilometroak 91 Gipuzkoako ikastolen jaietan. Aranzadi eta Mariaren Lagundia ikastolek antolatutako ekitaldian asko eta asko izan ziren lanean jardun

zuten bergararrak. Berrigarak zenbaki berezia atera zuen. 20.000 ale banatu ziren doan bisitarien artean. 41 milioi pezetako irabaziak izan ziren. Horietatik %60 Aranzadi eta Mariaren Lagundia ikastolentzat.



**ARANZADI
IKASTOLA**

Haur hezkuntzatik Batxilergora ikastolan bertan



San Martin Plaza 4
Tf: 943 76 90 71
Faxa: 943 76 91 77
e-maila: bergara@ikastola.net



Mariaren Lagundia Ikastola

**Tipi-Tapa
haurtzaindegia**

- **Ordutegia:**
7:30 - 19:00
- **Gurasoek umeak
bisitatzeko aukera**
- **Astelehenetik
eguakitzera**

☎ **943 76 01 52**



**Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko
Bigarren Hezkuntza eta Goimailako Heziketa Zikloa
(gizarte integrazioa)**

Espoloia 1. Tf. 943 76 25 40 / 41 • E-mail: marilagikastola@euskalnet.net
Webgunea: www.euskalnet.net/marilagikastola/bergara.html

Intsumisioa indarrean

Joan zaigun hamarkadan indartsuak izan dira intsumimisoaren mugimenduaren garrak. BOTA taldeak bildu zituen herriko intsumisoak. Hauen aurkako epaiketak etorri zirenean, gizarteak ere laguntza eta babesa eman zion mugimenduari. Hainbat bergarar epaituak izan ziren soldaduzka errefusatzegatik eta batzuk kartzela zigorra ere jaso zuten.



Euskararen hitzarmena

Euskararen erabilpena bultzatzeko hitzarmena sinatu zuten herriko 42 elkarte, ikastetxe edo talde **1991ko abenduaren 21**ean Udaletxean. Jardunen eta Udaleko Euskara Zerbitzuaren ekimenari esker sinatu zen. Ekitaldian, Mari Karmen Garmendia Hizkuntza Politikarako Idazkari Nagusia izan zen. **1995eko apirilaren 8an** beste 22 talde gehitu ziren hitzarmenera.



Agur betiko, Gaztetxeari

Gaztetxean itxita zeuden gazteak bertatik atera eta behin betiko itxi zuten Er-tzaintzak **1993ko azaroaren 15ean**. Bergarako epai-tegiak Gipuzkoako elizbar-rutiaren alde emandako sententziak 28 urtetan herriko gazteek erabili zuten lo-kala uztera behartzen zituen gazteak.

Protesta ekitaldiak ugariak eta jendetsuak izan ziren, Gaztetxea itxi aurretiko eta ondorengo egunetan. **1995eko maiatzean**, oste-



ra, Goiko Estazioko Zentral elektrikoko etxea okupatu zuten Gaztetxearen aldeko-

ek. Azken urteotan Gazte Lokalekoek Gaztetxe berria aldarrikatu dute.

PERTSONAIK



M. KARMEN GALLASTEGI

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Sailburu izendatu zuten 1991ko otsailean. EAJ eta EAK osatutako Jaurlaritzako emakume bakarra zen, izan ere, Ardanza Lehendakariaren gobernuan, gainontzeko 13 kontseilariak gizonak baitziren. Valladoliden eta Londonen ekonomia ikasketak egin zituen. Zortzi hilabete eman zituen kontseilari gisa irailan alderdien arteko ituna apurtu zelako.



IMANOL BOLINAGA

Madrileko Senaturako ordezkari izendatu zuen Eusko Legebiltzarrak 1991ko otsailean. 1999ko udaberrira arte, jubilatuz arte, izan zen senatore Madrilan EAJ alderdia ordezkatzuz. Bolinaga Bergarako alkatea izan zen 1983etik 1987ra bitartean eta Jaurlaritzan Turismo sailburuordea ere izan genuen.



xey
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK

Ibargarai 11-13
BERGARA
Telefonoa eta faxa:
943 76 70 58



GOIZPER

Transmisioak

- Enbrageak, balaztak eta balazta-enbrage mekaniko, pneumatiko, elektromagnetiko eta hidraulikoak.
- Espeka globika, lau eta zilindrikadun etenkako biragailuak. Espeka bereziak.

MATABI

Ihinztagailuak

- Nekazaritzan, lorategian, industrian eta etxean tratamendua egiteko ihinztagailu eta hautsezttagailuak.

FABRIKAZIOA:

GOIZPER

 KOOP. ELK.

Antigua auzoa 4
20577 Antzuola (Gipuzkoa)

211 posta kutxatila
20570 Bergara



Tf. 943 78 60 00
Faxak 943 76 60 08
943 78 70 95

E-mail: goizper@goizper.com
<http://www.goizper.com>

Azoka plaza berria Oxirondon

Oxirondoko azoka berriko lanak **1991ko uztailean hasi zituzten**. 218 milioi pezetako aurrekontuarekin adjudikatu zituzten lanak, eta bukatu zirenerako 299 milioi pezetaraino igo zen. **Proiektua 1990. urte amaieran onartu** zen HB eta EAren aldeko botuekin. EAjk aurka bozkatu zuen. Merkatu berriko lanak amaitu eta urte batzuetara zabaldu zen, Udalaren eta saltzaileen arteko hika-miken artean. Bestalde, azokako kanpoaldean aparkalekuak eta lorategia egiteko lanak **1994ko otsailean** hasi zi-



tuzten eta azoka bera **urte bereko irailaren 1ean** inauguratu zen. HBk eta ba-

serritarrek Azoka plazaren gestio txarra egitea leporatu zioten Udal gobernari.

PERTSONAIK



JUSTO GARATE

Espainiako Erregeak hartutako erabakiari jarraituz, Isabel Katolikoaren Ordenaren Zaldun Gurutzea eman zion 1991ko azaroan Justo Garate bergararrari Argentinako kontsul espainiarrak. Justo Garate 1994ko uztailean 2an hil zen Mendozan (Argentina), 93 urte zituela.

UNEDen aldeko protesta



Bergarako UNEDen eta Euskal Kultura Departamenduaren aldeko manifestazio jendetsuak eta protesta ekitaldiak izan ziren **1995eko**

udazkenean. Unibertsitatea berregituratu eta EKD kentzeko Patronatuak azaldutako asmoen kontrako protestaldiak izan ziren. Euskal

Kultura Departamentua, urteetan hainbat eta hainbat euskaltzaleren erreferentzia eta ikastoki izandakoa, azkenean, itxi egin zuten.



AGUSTIN ARANZABAL

A Coruñan egin zuen debuta Realarekin 1993ko otsailaren 21ean. Gazi gozoa izan zen Agusentzat, izan ere txuri-urdinek 5 eta 1 galdu zuten Depor liderraren aurka. Aranzabalek 19 urte zituen. Bergara Kirol Elkarteak 500.000 pezeta jaso zituen. 1995eko ekainaren 8an Espainiako selekzioarekin egin zuen debuta.

ESAN ZUTEN

Agustín Aranzabal "Gaztelu"

Realeko jokalaria ohia. 91.03.15

"Hamar urtetik hona, Euskadiko selekzioa egon izan balitz Espainiakoa matxakatzeko adinako taldea izan genezakeen, baina..."



Justo Garate

Medikua. 92.02.17

"Madrilen Euskal

Herriko Lagunen Batzarra sortu genuen eta talde horri eskutitz bat bidali diot Gobernuari eska diezaioten Bergara Kultur Hiri izenda dezala".



Idoia Azkarate

Antzerkilaria. 93.10.15.

"Gaztetxea era batera edo bestera defendituko dugu. Komenioko hau da 28 urtetan herriko gazteriak okupatu duen lokala eta uste dugu merezi dugula".




GRUPO T.T.T.
GAINAZALEN
TEKNOLOGIA
INTEGRATUAK

Tratamientos Térmicos **T.T.T.** S.A.

Elgetako errepeidea, z/g BERGARA
Tel.: 943 76 48 44 Fax: 943 76 50 47
<http://www.adege.es/ttt>
E-mail: ttt@adege.es



Ariznoa HOTELA

Instalakuntza moderno eta guztiz erosoekin,
gure bezeroek merezi duten
kalitatezko zerbitzua eskeiniz.

Teleforo Aranzadi, 3

Tel. 943 761 846 - 943 761 847

Faxa: 943 761 848

20570 BERGARA - Gipuzkoa

Udaletxea berriztuta



Udaletxea berrizteko proiektua izan zen Victoriano Gallastegiren lehen agintaldiko ekimenik garrantzitsuenak. **1992ko azaroan** hasi zituzten lanak eta **1995eko maiatzaren 6an** inauguratu zen. Pleno aretoa gainezka zegoela, Bergarako ereserkia estreinatu zen. Udaletxea barrutik hustu eta goitik behera berriztu zen. 800 milioi inguru bideratu ziren lanetara. Gipuzkoako Diputazioak jarri zuen erdia.

Miguel Altuna institutu berria

1996ko martxoaren 28an inauguratu zen. Ekitaldian, besteak beste, Iñaxio Oliveri Hezkuntza sailburua, Eneko Oregi sailburuordea, Mari Carmen Marin Diputazio-ko ordezkaria, Victoriano Gallastegi eta Mikel Larrea Bergara eta Antzuolako alkateak eta Jose Mari Larrañaga zuzendaria izan ziren.



Tavesan eta Algodoneran greban

Algodonera eta Tavesako langileek amaiera jakinik gabeko huelga hasi zuten **1997ko martxoaren 21ean**. Azken hiru urteetan sinatzeke zuten lan konbentzioa sinatzea, biabilitate plana negoziatzea eta inbertsioak egitea eskatzen zuten. Greban 87 egun eman ondoren, **ekainaren 17an** berriz

ere lanera itzuli ziren Algodonera eta Tavesako langileak. **Astebete lehenago 1997 eta 98ko** lan konbentzioa sinatu zuten sindikatuek eta zuzendaritzak. Enpresaren biabilitate plana (etorkizuneko inbertsioak, jubilatuzioak eta lanpostu berriak) negoziatzeko orduan ez ziren ados jarri.



PERTSONAIAK



JABIER RETEIGI

Industria sailburu izendatu zuen Jose Antonio Ardanza lehendakariak 1995eko urtarrilean. Eneko Oregi hezkuntza sailburu orde izendatu zuten. 1998an MCCra itzuli zen Reteigi. Gaur egun Mondragon Unibertsitateko errektorea da.



AITOR ZABALETA

Urteetan horren bila jo eta ke aritu ondoren, 1995eko uztailen Mendiko auto igoeretako Espainiako Txapelketa lortu zuen Aitor Zabaleta bergararrak. Aitorrek beste 3 bider irabazi du Espainiako txapelketa eta beste mordoska batean Euskadikoa.

ESAN ZUTEN

Lierni Irizar

94.12.02
"HIES gaitza dela eta, orain bizirik egotea bera gehiago baloratzen dut. Agian ez zait inporta zenbat denbora biziko naizen, zela biziko naizen baizik".



Patxi Azkargorta

Xabier Azkargortaren aita.
95.07.21
"Semea zein taldetan dabilen, gu talde hartakoak gara: lehen Espaynolekoak, gero Boliviakoak: orain, Txilekoak...".



Jose Antonio Zabala

Bergarako alkate ohia.
95.10.24
"Bergarako UNED Donostian balego Diputazioak, Kutxak..., denek defendituko lukete, baina herri batean dagoenez...".





LAZPIUR

CONSTRUCCIONES MECANICAS



Zorionak Berrigara!

Gabon zoriontsuak bergarrei

Tel. 943 769 016
Fax 943 765 169
San Blas auzoa, z/g
131 postakutxatila
E-20570 BERGARA
E-mail: lazpiur@lazpiur.com

Bisita ezazu gure web horria.
<http://www.lazpiur.com>



JAKINA

FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarra



Sukaldeko altzariak



6 URTEKO
GARANTIA

JAKINA, bainugelak,
zeramika eta sukaldeak

San Lorenzo Industri Poligonoa,
Amillaga 10, behea. BERGARA.

Telefonoa: 943 76 03 30. Faxa: 943 76 02 91.



Jakina, zurekin pentsatzen

Miguel Angel Blancoren heriotzaren kontra

Miguel Angel Blanco ETak 1997ko uztailearen 12an hil zuen PPko Ermuko zinegotziaren aldeko kontzentrazio isilean mila bat herritar bildu zen ordu-betez Udaletxe aurrean **uztailearen 14an**. ETaren ekintzen aurka protesta egiteko gure herrian egin diren bilkuren artean oihartzun handiena izan duena izan da. Kontzentrazioa hasi aurretik, ez ohiko Plenoan, Udalbatzak Euskal Autonomi Elkarteke udaletxe guztietan eta lu-



rralde historikoetako batzar nagusietan aurkeztutako mozioa eta Ajuria Eneko Mahaiak kaleratutako agi-

riarekin bat egitea onartu zuen aho batez. HBko zinegotziek ez zuten Plenoan parte hartu.

Ekimen ugari presoaren alde

Asko izan dira ETako ki-de izateagatik edo erakunde armatuari laguntza emateagatik hamarkada honetan atxilotu dituzten bergararrak. Horieta batzuk kalean dira jadanik eta beste batzuk espetxean jarraitzen dute. Presoen senideek eta Amnistiaren Aldeko Batzordeek antolatutako kale bilkurak edo bestelako ekimenak ere ugariak izan dira. Gaur egun 9 bergarar daude kartzeletan sakabatuta: Luis Mari Azkargorta, Jabier Lazkano, Mikel Zubimendi, Xabier Oregi,



Mikel Askasibar, Iñaki Arietaleanizbeaskoa, Jose Mari Etxaniz, Luis Etxebe-

rria eta Jose Migel Gaztelu. Horiez gain, beste 8 errefuxiatu.

PERTSONAIK



JAVIER BERASATEGI

Gipuzkoako Merkatal Ganbarak Javier Berasategi Tratamientos Termicos TTTko presidentea "Gipuzkoako Urteko Enpresa Gizona" izendatu zuen 1996ko martxoan. Lasa jabetxean egindako ekitaldian jaso zuen saria.



MAITE ARISTEGI

Bergarar abokatua Euskal Herriko Nekazarien Elkarteke (EHNE) idazkari izendatu zuten 1997ko apirilaren 12an. Baserritarren sindikatuaren lehen idazkari da Maite Aristegi.

ESAN ZUTEN

Mikel Herzog

Kantaria. 96.02.2

"Ni rockero erromantikoa naiz, pop erromantikoa egiten dut. Denentzat kantatzen dut, baina nire letrak batez ere jende helduarentzat dira".



Maria Josefa Ganuza

T. Monzonen alarguna. 96.03.15

"Mexikon geundela Euzko Jaurlaritza euskal sozialismoa sortzen saiatu zen, eta hori lortu ezinik 1952an Jaurlaritza laga zuen".



Iñigo Alberdi

Bergarako organoak bildumaren egilea. 96.03.30

"Toki gutxitan dago Bergaran besteko organo aberastasunik. Garai batean herri oparo eta aberatsa izan zen. Gehienak XIX. eta XX. mende artekoak dira".





- Integratzailea • Euskalduna
- Anitza • Doakoa



IPINTZA

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (D)
Boni Laskurain 17-19. Tf. 943 76 31 42 / 20



SAN MARTIN

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA (HH-LH)
Boni Laskurain 25. Tf. 943 76 21 47



M. ALTUNA

GOI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA
Ibargarai 1. Tf. 943 76 24 91 / 76 38 40



SAN MARTIN - IPINTZA - M. ALTUNA

Bergarako ikastetxe publikoak



Orfeoiaren 75. urteurrena

Orfeoiaren 75. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldien barruan, besteak beste, "Oliver!" musikalaren euskarazko bertsioa aurkeztu zuen Orfeoiak **1999ko maiatzaren 8an** Mariaren Lagun-

dian. Lan bikain honek merezitako arrakasta eta aitortpena jaso zuen herriarregandik. Hamarkada honetan azpimarratzekoak izan dira, era berean, "**Miserableak**", Musika Eskolaren **10. urteurrena** os-

patzeko antolatutako ikuskizuna, **1994ko urtarrilean** aurkeztu zena, eta "**San Martinen estampa**", San Martin gurutziltzatu zuteneko **400. urteurrenean**, **1997ko otsailean**, estreinatutakoa.

Hogei urte ikurrinarekin

1997ko urtarrilaren 19an hogei urte bete ziren ikurriña Bergarako Udaletxean ere jaso zela. Franco hilda, Jose Luis Elkoro Bergarako alkatearen eta beste herri batzuetako alkateen ekimenari esker, ikurriña legeztatzea lortu zen eta **1977ko San Sebastian eguneko bezperan** Euskal Herriko hainbat udal txetako balkoietan jaso zen ikurrina. Argazkian, orduko Arrasateko, Zarautzeko, Azkoitiko, Oiartzungo, Legazpiko, Hernaniko eta Bergarako alkateak ikus ditzakegu.



PERTSONAIAK



EDU MURUAMENDIARAZ ETA AMAIA AGIRRE

Seguran jokaturako Euskadiko dantza sueltoko txapelketa irabazi zuten, 1993ko uztailaren 20an.

Hurrengo bi urteetan ere irabazi zuten txapelketa.

Eduk, bestalde, aurrerku txapelketa irabazi zuen lehen aldiz 1994ko maiatzaren 29an Pasaian. Ondoren, beste bi urtez jarraian irabazi zuen.



JOSE ANTONIO ZABALA

Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak eta Bergarako Udalak Jose Antonio Zabala Bergarako alkate ohia omendu zuten 1998ko abenduaren 18an Udaletxeko Pleno aretoan. Jose Antonio Zabala uztailaren 7an hil zen 78 urte zituela.

ESAN ZUTEN

Alex Barruso

Elkarriki kidea. 96.05.17

"Bake proposamen guztiak hartuz gero, elkarrizketa nahia somatzen da, baina gero bakoitza bere esparruan itxita dago, bakoitzak bere proposamena aurreraeraman nahi du eta".



Fran Iturbe

Musikaria. 96.07.05

"Jendea erromerietako taldeak errekonozitzen hasi da. Erromeria soinu bat dago. Hemen bakkari aurkitu daitekeen soinua da, autoktonoa eta desagertzeko zorian dagoena".



Luisa Agirrezabal

Bergarako amama 96.10.04

"Bizitza guztian lan in dot, ta geratu nitzan 87 urtekin, motorrak hankak fastidixau zostanian. Mobidu in biha da. Ura geldi badao, aura be usteldu eitten da".





*Edertasunaren hazia
barnean daramazu,
zatoz gugana
loratu dadin.*

LILURA

Edertze Institutua

Bidekurutzeta 7. BERGARA
TF.: 943 76 31 71




GIDE COLOR ZURE PINTURA DENDA



- ✓ Zenefak pintatzeko txantiloiak.
- ✓ Paper pintatuak.

BANATZAILE
OFIZIALA:.



40 mila kolore
egiten ditugu
momentuan

- ✓ Fatxaden estaldurak



- ✓ Egurra babesteko tratamendua



- ✓ Parketak, oholtza flotagarriak, moketak, sintasolak, alfonbrak.



Ordutegia:

08:00-13:00 eta 14:30-19:15
Zapatuetan: 09:30-13:00

Tf. 943 76 52 42 Faxa 943 76 56 17
Amillaga 5 (Renault ondoan)



Bergara hirugarren mailara

Hirugarren mailarako igoera lortu zuen Bergarako futbol taldeak **1999ko maiatzaren 22an**, Aloña-Mendi taldeari, Oñatin, 1 eta 2ko emaitzarekin nagusitu ondoren. Handik astebetera, denboraldiko

azken partidua atarian, Preferente mailako txapel-dunen kopa eman zion Juan Luis Larrea Gipuzkoako Federazioko presidentek Markel Egaña mahoneroen kapitainari. Urolaren aurkako partidua bina

amaitu zen eta Agorrosin leporaino bete zen Enrique Nietoren taldeak urtean zehar egindako lana txalotzeko. Partidua ostean, alkateak harrera egin zion plantilari Udaltxean.

Eibar-Gasteiz autopista

Juan Jose Ibarretxe Lehendakariak, Roman Sodupe Diputatu Nagusiak eta Victoriano Gallastegi alkateak Eibar-Gasteiz autopistaren lehen harria jarri zuten **1999ko maiatzaren 27an** Basalgon. Obrak ekain amaieran hasi zituzten, eta aurreikusitako bidetik doaz. Autopistaren kontrako ahotsak ere entzun dira bat baino gehiago: **ekainaren 12an** bailara mailako manifestazioa egin zen Bergaran.



Manifestaziorako deia talde ekologistek, gazte talde eta asanbladek, Zutik-ek,

HBk eta IU-EBk egin zuten. Manifestazio jendetsua izan zen.

PERTSONAIK



JOSE LUIS ELOKORO

Martuteneko espetxean 19 hilabete igaro ondoren, uztailaren 21ean aske laga zuten. Auzitegi Gorenak 1997ko abenduan espetxeratu zituen Mahai Nazionaleko kideak ETA erakundearen bideo bat ematearen erantzunkizuna leporatuta.



IÑAKI IBABE

Iñaki Ibabe, 17 urte Estatuko hainbat gartzelatan egona, kalera irten zen 1997ko abuztuaren 14an Langraitzeko espetxetik. Amnistiaren Aldeko Batzordeak antolatuta, Ibaberi ongi-etorria egin zitzaion eta herri bazkaria izan zen San Martin plazan.

ESAN ZUTEN

Asier Altuna

Zinemagilea. 97.12.19

"Laburmetraia bat egiteko nagusiki anekdotak behar dira eta, oraingoz behintzat, hor topatu ditugu. Azken batean pertsonaia on bat izanda gauza interesgarriak egin daitezke"<



Mikel Lazpiur

Enpresa gizona.

98.02.27

"Lan gutxiago egiten badugu, ezin izango diogu eutsi konpetitibitateari. Lana ondo egiten badugu, lanpostu gehiago sortuko ditugu"<



Mikel Usabiaga

Teknologia berrien

irakaslea. 98.02.27

"Telebista neurrian ikustea ona da. Erabiltzen jakin behar da, ematen diogun erabilgaratik familiaren etsaia bihurtu delako"<



PERTSONAIK



KOLDO LASA

Euskal Gastronomiako Akademiak urteko sukaldari onena izendatu zuen eta Euskadi Gastronomiako saria jaso zuen Koldo Lasas 1998ko urte hasieran. Urrezko Sukaldari ere izendatu zuten ekainean Intxaurrondoko VIII. Aste Gastronomikoan.



JESUS MARI UGALDE

Jesus Mari Ugalde bergararrak Euskal Herriko Adiskideen Elkarteak eta Eusko Legebiltzarrak banatzen duten Xabier Maria Munibe saria jaso zuen, kimika kuantikoan egindako lanagatik, 1998ko uztailean. Zientziaren arloan eginiko ibilbide profesionala saritu nahi izan zuen epaimahaiak.

Hogei urte kartzelan



Jose Mari Etxaniz preso bergararrak 20 urte bete ditu kartzelan **aurtengo otsailaren 19an**. Espetxean urte gehien daramatzan Debagoieneko preso da Etxaniz. Bere sumarioan ez dago odol deliturik eta **1995ean** bete zituen ezarritako zigorraren hiru laurdenak. Etxaniz askatzea eskatzeko ekimenak ugariak izan dira azken urteotan. Bere aldeko plataforma bat sortu da eta herriko indar politiko, sindikatu, talde, erakunde eta elkarte gehienek bat egin dute bere askatasuna eskatzeko orduan. Jose Mari Etxaniz Topaseko kartzelan (Salamanca) dago gaur egun.

Lizarra-Garaziko haizeak

Duda barik, hamarkadako albisterik nabarmenena ETaren su etena izan da. **1998ko irailetik 1999ko azarora indarrean** egon zena. Eta, horren inguruan, gatazka politikoari irtenbidea aurkitzeko gehiengo politiko eta sindikalak adostutako Lizarra-Garaziko Akordioa. Hitzarmen horrek izan zuen eragina gure herrian ere: alderdi abertzaleen arteko elkarlana, Udalbiltza..., eta EAJ, EA eta EHren arteko udal gobernuak. **1999ko maiatzeko udal hauteskundetan** EAJ-EA



koalizioa izan zen garaile eta lortutako 8 zinegotzietan Victoriano Gallastegik alkatetza lortu zuen. Urte bereko irailean, EAJ-EA-EHren arteko gobernu abertzalea eratu zen Bergaran eta aurtengo udara arte

iraun du. ETak su etena bertan behera laga izanaki eta ekintza armatuei ekin izanaki egoera politiko gaiztotu eta abertzaleen arteko elkarlana oztopatu egin du eta horrek izan du eragina Bergaran ere.

ESAN ZUTEN

Markos Gabilondo

Komite Internazionalistak.

98.04.24

"Badirudi Mexikoko gobernuaren helburua indijenak suntsitzea dela. PRI alderdiak diktadura baten antzera gobernatzen du".



Unai Lopez

Bakearen Aldeko Ibilaldikoa

99.04.16

"Agintari politikoen zain egon barik, hobe da gizarte osoak bakea bultzatzea, prozesuan buru belarri murgiltzea".



Jose Angel Mikeo

Jarduneko Lehendakaria

00.02.25

"Euskara irakurle asko sortu ditu Berrigarak eta, horretaz gain, Jardunek antolatutako kultur ekitaldietan ere aurrerakada eman da".



Industrialdea inauguratu

Labegaraietako Industrialdea inauguratu zen **aurtengo martxoaren 23an**. Inaugurazio ekitaldian Iñaki Telletxea, Eusko Jaurlaritzako Industria Politikarako sailburuordea, Jose Ramon Beloki, Gipuzkoako Ekonomia saileko diputatua, Anton



Zubiaurre, SPRILUR, Lurzoru eta Eraikuntza Industrialen Sustapenerako Sozietateko zuzendari orokorra eta Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea izan ziren, politika, gizarte eta ekonomia arloko gonbidatuekin batera.

Luisa Agirrezabalek 104 urte 2000n

Luisa Agirrezabal bergararrak 104 urte bete zituzten aurtengo urriaren 9an. Osasunez primeran dago eta bakarrik bizitzen jarraitzen du oraindik ere, San Pedro kaleko bere etxean. Bere urtebetetzearen bezperan, senideekin batera bazkaria izan zuen Luisak.



Aurea Agirrezabal, Luisaren ahizpetako batek 96 urte egin zituen urriaren 3an eta Aurearekin bizi den beste ahizpa batek, Elisabetek, 81 urte dauzka. Hiruren artean, 281 urte batzen dituzte. Bestalde, gogoratu behar da **Jose Telleriarte 1994ko apirilaren 12an hil zela**, 104 bete zituela. Mizpirualde Egoitzan hil zen.



Kofradia berria

San Martin jaientan, irailaren 17an, Bergarako Tostoiien ea Erreilenoen Kofradiak lehendabiziko Batzar Nagusia egin zuen aurtun. Helburua Bergarako produktu tipiko hauek eza-gutzera eman eta bultzatzea da. Udaletxean egindako ekitaldian, ohorezko kofrade izendatu zituzten Larrañaga, Mujika, Alzelai eta Raizabal gozogileak.

PERTSONAIK



JUAN CARLOS LARRAÑAGA ETA JOSE IGNACIO IGARZA

Aurtengo apirilean, Gipuzkoako Merkataritza Ganbarak "Gipuzkoako Urteko Enpresa Gizon" izendatu zituen Juan Carlos Larrañaga eta Jose Ignacio Igarza, Marcos Larrañaga eta Industrias Ibili enpresetako buruak, hurrenez hurren.



MANU MUNIATEGIANDIKOETXEA

Manu Muniategiandikoetxea pintore bergararrak Gure Artea 2000 saria jaso zuen aurtengo urrian, "Palés" izeneko lanarengatik. Bergararrak gain, Javier Alkain eta Itziar Okariz donostiarrek saritu zituen epaimahaiak.

ESAN ZUTEN

Agustin Unzurrunzaga

SOS Arrazakeria. 00.03.24

"Gaur egun etorkin komunitarioen kopurua ez da handia Hego Euskal Herrian. Jendearekiko harremanetan jarrera irekiak eta xenofoboak ikusten ditugu".



Mari Karmen Aiausti

Senideak. 00.04.28

"Asko dago salatze baina dispertsioarekin amaitu beharra azpimarratuko nuke. Beste familia batzuekin esperientziak elkartrukatzek asko laguntzen dizu".



Mari Karmen Gallastegi

00.10.20

"Globalizazioak identitatea galtzea dakar eta kultura homogeneizatzea. Euskal Herrian ez dugu hausnartu globalizazioak izango duen eragin politiko eta sozialari buruz".



ALDIBI AUTOAK, S.A.

ZIGARROLA KALEA, 1 - TEL. 943 71 20 02 - 20500 MONDRAGON-ARRASATE



IKUSPUNTU BERRI BAT.



NISSAN ALMERA *Tino* BERRIA. Mundu guztiak gauzak modu berean ikusten ez dituelako, Nissan Almera Tino berriak ikuspuntu guztiak hartzen ditu bere baitan. Umeak, adibidez, jolas-parke batean bezala, izango dira Tinoan: irakurtzeko eta marrazteko mahai tolesgarriak era guztietako panpinak gordetzeko lurreko kutxa ateratzekoa, liburuentzako sareak, arkatzak eta baita 12v.-tako entxufea ere bideo-jokoekin jolas egin dezaten. Nissan Almera Tino berria. Txikientzat inoiz egin den gauzarik handiena.



5 URTEKO GARANTIA
www.nissan-almeratino.com

1.8-KO MOTOREA COMFORT
2.592.000 pta.*

2.2 Di MOTOREA COMFORT
2.792.000 pta.*

2.0 Cv MOTOREA AMBIENCE
3.162.000 pta.*



GIDATU ETA GOZATU

Denboraren kapsula

Denbora ez da alperrik igaro. 10 urte kanpoan pasa eta berriz ere herrira itzuliko bagina, berehala konturatuko ginateke urteak ez direla alperrik pasa eta, benetan, uste baino gehiago aldatu dela Bergara. Hainbestera ez dela? Ikus itzazue ondorengo orrietako argazkiak, ea zer iruditzen zaizuen.

ZUBIETA



Etxeandiko zubitik Agorrosinera bitartean, Deba ibaiaren ubideratze lanak egin ahal izateko bota egin zuten Zubietta kaleko 19. zenbakia 1991ko abuztuan.



CAMACHO ETXEA, BIDEKURUTZETA



Lehen Camacho farmazia zegoen etxea, Bidekurutzeta kalean, 1991ko azaroan bota zuten. Etxea ez ei zegoen oso egoera onean eta berria egiteko botatzea erabaki zuten jabeek. Berriak egiteko? Ez dakigu, 9 urte eta gero, zegoenetan jarraitzen du eta.

IBARGARAI



Herrian zerbait aldatu bada, Ibargarai aldea izan da. Gaur egun erabat itxurldatauta dago ingurua, batez ere, orain dela pare bat urte etxe berriak egiten hasi zirenetik.





BASTER

Irala z/g. ☎ 943 76 10 08

BERGARA



Antzuolako Udala

Zorionak Berrigara
10. urteurrenean
eta orain arte bezala,
gure herriko berriak
zabaltzen jarraitu.

PLAZAKO KIOSKOA



Hamarkada honetan Bergaran egin den beste obra garrantzitsuenetakoa bat udaletxearen eta inguruaren birgaitze lana izan da. Ikusi bestela, 1992ko argazkia.



MINTEGI KALEA



Mariaren Lagundia ikastetxearen lehengo ortuen inguruan, Espoloi aldera ematen duen horma bota egin zuten 1992ko urrian. Bai ikastetxean eta baita Espoloi inguruan ere urbanizazio lan garrantzitsuak egin ziren, tartean etxe berriak.

UDALETXE ATZEKALDEA



Udaletxea berritzeko lanak zirela eta Artekalea itxita egon zen hilabeteetan. Horrela zegoen 1993an eta horrela dago gaur egun.

EGUZKIALDEREN ORDEZ ETXEAK



Eguzkialde etxea 1995ko abuztuan bota zuten. Etxea berriak egiteko bota egin zuten. Egin ere aguro asko egin zituzten berriak



Garai berrietan ere...

Txukuntasuna



Argitasuna



Erosotasuna



Osotasuna



Lasaitasuna



hemen aurkituko duzu

SAN ANTONIO ERMITA BEHERA



Uhola errearen ubideratze lanak hasi zituzten 1998ko uztail amaieran eta hori dela eta, San Antonioko XIX. mendeko ermita 1998ko abenduaren 27an bota zuten. Ondoko beste etxe batzuk ere bota zituzten eta, oraindik zutik dauden La Parranekoa-eta ere aurki botako dituzte bertan babes ofizialeko etxeak egiteko.

ZINE ARETOAREN ORDEZ ETXEAK



Irala zine aretoa botatzeko lanak 1996ko urriaren erdialdean hasi ziren. Irala zine aretoa 1970eko martxoan inauguratu zen eta 1986 urterarte egon zen zabalik. Bertan etxebizitzak eraiki dituzte.



BEHEKO ESTAZIOARI AGUR



Kapirixok eta beste hainbat taldek eraikinari zegoenetan eusteko aha-legalinak egin arren, Beheko Estazioa bota egin zuten abenduaren 1999ko 17an. Mende honen hasierako eraikina, garai bateko ferrokarrilaren lekukoa zen.



INDUSTRIALDE BERRIA



Bergarako Altos Hornos enpresa zaharreko hiru tximinia bota egin zituzten aurten go Pazkuen aurreko astean industria pabilioi berriak egiteko. Laugarrena mantendu egingo da.


Azala mami



1. 1990.12.14.
Lehenengo Berrigara



23. 1991.05.31.
EAJ garaile Udalerako



35. 1991.10.06.
Kilometroak Bergaran



48. 1992.01.17.
Justo Garaterekin Argentinan



49. 1992.01.24.
MAYC italiarren eskuetan



Urtekaria 92
Lehenengo urtekaria



96. 1993.02.19.
EEK eta PSOEK bat egin zuten



127. 1993.11.19.
Gaztetea itxita



133. 1994.01.14.
Miserableak ikuskizuna



213. 1995.11.24.
Alkate chiarekin berriketan



249. 1996.10.04.
Luisa Agirrezabalek 100 urte



271. 1997.03.14.
Korrika 10



288. 1997.07.18.
Angiolillo hil zutela 100 urte



289. 1997.09.05.
17 urte ostean, aske




306. 1998.01.09.
Berrigara berriztua



320. 1998.04.24.
Taun-Taunen Txontxongilo Mostra

Hamar urteotan hainbat gai ekarri ditu Berrigarak portadara. 32 aukeratu ditugu. Batzuekin aldizkariaren garapena erakutsi nahi izan dugu, gertakari esanguratsu batzuk gogorarazi beste batzuekin... Herriaren hamar urte hauetako historiaren printzak.



325. 1998.05.29.
Pazkuak



336. 1998.09.25.
Bake prozesuan, hogei aurpegi



337. 1998.10.02.
Orfeoiak 75 urte



342. 1998.11.06.
Azur: artea eta bizitza



345. 1998.11.27.
Berriz ere bai euskarari



361. 1999.03.26.
Bergara, "Ertzainak" en platoa



369. 1999.05.28.
Hirugarren mailara



370. 1999.06.04.
Skaterrak patinatzeko gune eske



377. 1999.09.03
Txekorra hiltzea ezbaian



379. 1999.09.17.
Goitibehera txapelketa




383. 1999.10.15.
Raul Luqueren aldeko desfilea



385. 1999.10.29.
Estaziño zaharra auzitan




397. 2000.02.11.
Herriko pilotariak herriko frontoian



401. 2000.03.10.
Trenbidea bidegorri



412. 2000.06.02.
Deba ibaia biziberritzea helburu



422. 2000.09.22.
Punkiak herriko kaleetan

Zorionak Berrigara! eta urte askotarako




BERGARAKO udal euskaltegia

Zabalotegi, 13 • BERGARA •
Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net
berg.euskudal@euskalnet.net

Zumelaga

Jatetxea



**Zumelaga jatetxea aurrera doa Berrigara bezala.
Zorionak Berrigarari zuen lanagatik**

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21

Nor izan da?!

Berrirako langileak eta korabolatzaileak

Berrigara astero-astero iristen da gure etxeetara. Hori lortzeko, makina bat lagun ibili da lanean hamar urte hauetan. Hona hemen, Berrigararen lanean ibilitakoen eta kolaboratzaileen zerrenda. Azken hauei eskerrik asko, eurengatik ez balitz ez ginatkeen honaino iritsiko eta.



M. Angel Elkoroberezibar

Zuzendaria.
1990.12./1991.12
Orain: Donostian irakasle.



Gorka Elorza

Zuzendaria.
1993.12./1995.02
Orain: Gipuzkoako Behi Elkartearen ari da.



Eneko Azkarate

Kazetari eta zuzendaria.
1991.03./2000.02
Orain: Goienako zuzendaria.



Edu Mendibil

Kazetaria.
1991.06./2000.12
Orain: Berrigarako zuzendaria.



Edurne Arenaza

Maketatzailea, publizista eta harpidetzak.
1990.12./1994.01
Orain: Gertu inprimategian.

KOLABORATZAILEAK

Antonio Urzelai
Jossanzu Oregi
Maripi Laskurain
Alex Labaien
Estepan Plazaola
Benito Cantero
Dani Santos
Miren Leturia
Alberto Eguren
Natxo Millan
Jose Aguayo
Jaime Garzia
Patxi Retolaza
Juan Martin Elexpuru
Jose Angel Mikeo
Anton Arrillaga

Josu Okina
Iñaki Artola
Agurtzane Arriola
Mirari Alberdi
Karmen Urrutia
Laura Etxaniz
Asier Madinabeitia
Imanol Arregi
Mikel Alberdi
Xabier Larrañaga
Ainhoa Lete
Jon Ander Bengoa
Mikel Lizarralde
Josune Iñarra
Aitziber Aretxaga
Ainhoa Bikuña
Iñaki Eraña



Inazio Irigoien

Publizista.
1991.01./1991.10
Orain: Irlandako "Anphoblacht" aldizkarian.



Iñaki Arietaleaniz-beaskoa

Publizista.
1991.10./1992.02
Orain: preso.



Aitor Aranzabal

Publizista.
1991.10./1992.09
Orain: EHko zinegotzia Bergarako udalean.



Alex Azkarate

Publizista.
1992.10./1996.12
Orain: EHNEko Ardatza aldizkarian.



Miren Josu Arrazola

Kazetaria.
1992.09./1992.10
Orain: ETBko kazetaria da.



Puretskin.
Acne-aren aurkako tratamendua



Giartzu

Boni Laskurain 3
Telefonoa: 943 76 35 71



Viviance
Zimurren aurkako tratamendua




Laser fotodepilazioa

Ondo pasa

Gabonak!!

Eta urte

berri on!!



Redukzio tratamendua



Mikel Elkoroberezibar

Kazetaria.
1992.10/1998/03
Orain: Elay lantegian.



Jone Larrañaga

Kazetaria.
1995.03/1996.11
Orain: Antzuolako Udaletxean.



Aitziber Azkondo

Kazetaria.
1998.03/1999/07
Orain: UNICEFen lanean Venezuelan.



Iñaki Iturbe

Maketatzailea.
1997.01/2000-12.



Kristina Romero

Publizista.
1997.1/1999.02
Orain: Bidaia agentzian izan da lanean.

Imanol Sorondo
Olaia Intza
Leire Etxaniz
Josune San Juan
Nerea Alzelai
Iban Arantzabal
Joxean Azkarate
Luis Mari Agirre
Ane Miren Goenaga
Bittor Rodriguez
Gorka Ortega
Alex Ugalde
Unai Azkarate
Peru Azkarate
Jon Alvarez
Jose Martin Ezenarro
Julian Ezenarro
Antxon Agirre Sorondo
Felipe Iñarra
Silvia Sanz
Iñigo Urrutia
Xabier Azkoitia
Luisi Dominguez
Maite Aristegi
Marta Moral
Andres Osa "Sakona"
Antonio Zabala
Markos Balentziaga
Asis Iriondo
Joxe Lazkano
Jesus Mari Kalboetxeaga
Elena Laka
Mikel Irizar
Tomasa Zabaleta
Iñazio Arregi
Jon Altuna "Oxan"
Iñaki Gabilondo

Ane Miren Lizarralde
Maria Urzelai
Ainhoa Agirreazaldeg
Eugenio Alles
Elena Fernandez
Fermin Lazkano
Iñigo Iñurrategi
Ane Garciandia
Cristina Garciandia
Xabier Azkarate
Victor Irigoien
Alfonso Alonso
Amaia Zabaleta
Sabin Zabaleta
Roman Lazpiur
Julian Igartua
Noelia Aldai
Pakita Urkaregi
Jose Ramon Serrano
Ainhoa Altuna
Juanjo Nogueiras
Ricardo Pagoaga
Lupe Garcia
Alberto Altube
Julio Etxeb erria
Pili Gisasola
Pedro Otazua
Rosa Agirrebeña
Jose Ramon Fernandez
Bernardino Maiztegi
Jose Luis Armendia
Ana Beroiz
Lierni Narbaiza
Zerrenda amaigabea da.
Eskerrik asko Berrigara egiten lagundu diguzuen guztiei



Uxue Zabaleta

Publizista.
1999.02/2000.12.



Tere Madinabeitia

Kazetaria.
1999.11/2000.02
Orain: Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuko teknikaria.



Monika Belastegi

Kazetaria.
2000.02/2000.12.



Aintzane Irizar

Kazetaria.
1999.11/2000.12.



Eba Alberdi

Harpidetza.
1994.01/1999.07
Orain: Mizpirualde Egoitzan ari da lanean.



Itziar Kortabarria

Harpidetza.
1998.09/2000.10
Orain: Debagoieneko Mankomunitatean.



Nerea Lazpiur

Harpidetza.
1998.11/2000-12.



RENAULT

**Zeuk ere eduki Renault kontzesionario
batek gaur egun eskaintzen dizun guztia.**



40 urte baino gehiago zeure zerbitzura.
Zerbitzu azkarra, Renault-en Menu Horia.
Renault-en gama osoa daukagu, Merkataritza eta Industria Ibilgailuak.
Eskaintza ugaria aukerako ibilgailuetan.

RENAULT kontzesionarioa

MECA, S.A.

C/Amillaga, 5
Tel.: 943 76 40 68 - BERGARA

C/ San Andres Auzoa, 8
Tel.: 943 71 21 67 - ARRASATE

Pol. Ind., z/g (Anoeta)
Tel.: 943 65 28 43 - TOLOSA

ALBUMA

Zeuok, herritarrok, zarete Berrigarako protagonistak. Baina gaur, egun batez, protagonista Berrigara da, urteak egiten ditu eta. Behingoagatik bada ere, Berrigarako eta Jarduneko argazki albuma erakutsiko dizuegu. Politza?

Jardunen sorrera batzarra, UNED-eko areto nagusian.
(1990eko maiatzaren 17an)



Jon Anduezak Ricardo Arregi saria jaso zuen 1991ko
uztailean, "Txomin Pineda: berea ez den gerran"
lanagatik



Berrigara hasierako lantaldea. Edurne Arenaz
(publizista eta maketatzaila), Miguel Angel
Elkoroberezibar (zuzendaria), Juan Martin Elex
puru, Estepan Plazaola eta Jose Angel Mikeo
(Erredakzio Kontzeilukoak) eta Jon Andueza
(kazetaria eta maketatzaila).




Berrigarako bi kazetari, Jon eta Eneko,
Errotaldeko egoitzan. (1991)



Berrigarako 1992ko lan-taldea



*Kalitatean
Especialistak*

 **MATZ-ERREKA**



MATZ-ERREKA Kudeaketan autonomia maila altua duten hiru negozio unitatez osatuta dago:

PREZISIOZKO PLASTIKOAK: material termoplastikoetan injektatutako pieza teknikoak

FINKAPEN ELEMENTUAK: Bereziak, segurtasun handikoak.

AUTOMATIZAZIO SISTEMAK: Ate eta pertsianentzat.

 **MATZ-ERREKA**

Matz-Erreka, S. Coop.

Ibarreta z/g 20577 Antzuola (Gipuzkoa)

Tf. 943 78 60 09 Faxa 943 78 70 34

INTERNET: <http://matz-erreka.mcc.es>

E-mail: matz-erreka@matz-erreka.mcc.es





Mikel Markez kantaria euskal kanten ikastaroa ematen (1993)



Txantxangorri taldeko kide bat Berrigara banatzen



Jarduneko aisialdi taldeko neska-mutiko batzuk: Lekeitioko hondartzara egindako irteera.



Duela 9 urteko banatzaile taldea aldizkari sortak antolatzen Errotaldeko egoitzan



*Matxiategi 4.
Tf. 943 76 57 99*

*Zurradero 2.
Tf. 943 76 01 26*



OLABE

okindegia - gozotegia



*Lantokia.: Amillaga kalea
Tf. 943 76 72 28*

Bergara

IRALA Autozerbitzua

*Trizar pasealekua, 3
Tf. 943 76 10 71*



berria

**FOTOPACK
2x1**

24 x 36 negatiboentzako soilik



**aukera hoberena zure
argazkiak partekatzeko**

Zure hurrengo karretea
Kodak Gold
135-24 200 ISO

Aurkibide-kopia
zure argazkiak
aurkitzeko

Bi kopia
zure argazki
guztietan



kiñu
argazkilariak

Fotopack 2x1 kaxa
dotore eta
berezian

Argazkiak
ertz zuriarekin
10x15,5 neurrikoak

Barrenkalea, 35 • Tel. 943 76 58 05



Jardunek Erramu Zapatuko ferian antolatzen duen lehiaketako txorimalo bat



Jardupek Pazkuetan jarritako txozna (1992)



Berrigarak gaur egungo diseinura jauzi egin zueneko aurkezpena



Jardunen blusa lehiaketan parte hartu zuen kuadrila bat. Hauetako batzuk Berrigara banatzen duten Txantxangorri taldekoak ziren.

Berrigara: 10 urtez euskal prentsaren alde

EUSKAL HERRIAK

MARKO NAZIONAL ETA SUBIRAUA

BEHAR DU

BAITA EUSKARAK ERE

OFIZIALTASUNA



u
r
t
e

a
s
k
o
t
a
r
a
k
o

ELKAR
ELEKTRAGINTZA

**ZURE
ZERBITZURA!!**

Mota guztietako instalazioak



943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.

BERGARA



Ikasle batzuk BERRIGARA bisitatzen, Errotaldeko egoitzan

Itziar Larrañaga Amodiozko gutunen lehiaketan berrigarar onenaren sariaren irabazlea bere gutuna irakurtzen. 1998.



Asier Gabilondo, Txantxangorri taldeko kide ohia, eta bere lagunak Erroman BERRIGARAKO ale batekin.



Jon Andoni Urisabelek Jardunek Masterrekan izandako lehenengo egoitzarako egindako mural bat.

10 urte barru gehiago...

Mizpildi 8

943 76 12 32



MIZPILDI



OKINDEGIA



Matxiategi 1

943 76 72 73

Eta kafe
dastaketa!

BERGARA

EGUNERO

goizeko 7etatik zabalik.

**Gosariak, pintxoak,
bokatak eta meriendak.
Logelak.**

Kafea-Pentsioa



Logelak



Kafetegia

Bidekurutzeta 34. Tf. 943 76 47 23

Berrigara eta herri aldizkarien Topagunea



Bergaran, Berrigara; Arrasaten, Arrasate Press; Elgetan, Goibekokale; Antzuolan, Kontuola; ... Seguru asko, zuetako gehienok jakingo duzue beste herri batzuetan ere badaudela gurearen antzerako aldizkariak. Batzuk astekariak dira, hamabostekariak besteak, eta badaude hilabetekariak ere. Baita bestelako komunikabideak ere, telebista edota irratia, esaterako. Horietako gehienak euskara elkarteek ekimenez sortuak izan dira, beraz, herriko berriak zabaltzearekin batera, berri horiek euskaraz ematea dute helburu. Topagunea bihurtu da, 1996. urte bukaeran sortu zenetik, euskara elkarte eta herri komunikabide hauen guztien topagune.

Euskal Herriko herri, auzo eta hiritan 80ko hamarkadan hasi ziren euskara elkarteak sortzen. Helburua: euskararen normalizazioa. Elkarteon eskutik sortu dira herri komunikabideak ere, salbuespenak salbuespen. Horixe izan da Berrigararen kasua ere, Jardun izan baitzen herri aldizkari honen ardura hartu zuena duela hamar urte. Ez da, gainera, erronka makala izan.

Hala ere, ez dugu ahaztu behar ez garelako bakarrak, Euskal Herriko toki askotan daudela euskara elkarteak, eta baita herri komunikabideak ere: direla aldizkariak, direla telebistak. Garai hartatik hona euskara elkarte eta herri komunikabideak hazten joan dira, bai kopuruari dagokionez, eta baita taiminari dagokionez ere. Gero eta gehiago dira euskararen nor-

malizazioaren alde lanean diharduten euskaldunak, eta, bide batez, baita herria euskaraz informatzen dihardutenak ere.

Gaur egun ia 60 herri komunikabide daude Euskal Herrian, horietatik 38 Topagunean biltzen dira: 33 aldizkari, hiru irrati eta bi telebista.

Goienan batzen diren komunikabide guztiak ere (GoITB, Goienkaria ...) Topagunean daude.<



Durango Euskal Liburu eta Disko azokan ere izan da Berrigara Topagunearen eskutik.



ATEAK ETA LEIHOAK

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA



SUKALDEAK

eta baita ere:

TARIMAK-PARKETAK, GRADULUX PERTSIANA ETA KORTINA GRADUGARRIAK,
FLEX KOLTZOIAK ETA MOTA GUZTIETAKO AROZLANAK.



HORMA ARMAIRUAK

TAILERRA:

Urteaga 20. 943 76 11 73

ERAKUSKETA:

Bidekurutzeta 38. 943 76 31 03



PVCZKO LEIHOAK

ITURGINTZA-BEROGAILUAK-GASA
BAINURAKO ALTZARIAK

Larrañaga
Eguren, B. M.

Juan XXIII
Tf. eta Faxe 943 76 11 88
20.570 BERGARA

50 urte
baino gehiagoko
esperientzia
eta profesionaltasuna
egunez egun frogatuak.


Iturgintza, gas natural,
propano eta butano eta
berogailu instalakuntzak.

Sukalde eta bainu
berrizketak.
Bainuko altzariak.



Topaguneko herri komunikabideak

Guztira 38 komunikabide batzen dira Topagunean. Eskuma aldeko mapan, komunikabide bakoitzaren kokapena agertzen da. Azpialdeko kuadroan komunikabideak zerrendatuta eta bakoitzak argitaratzen duen ale kopurua.



ALDIZKARIAK	Eremua	aleak
ARABA		
1. Geu Gasteiz	Arabako Lautada	2.500
BIZKAIA		
2. Berton	Santutxu	1.200
3. Drogeteniturri	Ermua	1.800
4. Eraz	Durangaldea	2.500
5. Euskarri	Barakaldo	-
6. Nontzebarri	Mungia	-
7. UK	Uribe Kosta	3.500
GIPUZKOA		
8. Aiurri	Betteri-Aitzondo (Andoain)	2.500
9. Aretxagazeta	Aretxabaleta	2.500
10. Arrasate Press	Arrasate	6.500
11. Baleike	Zumaia	1.200
12. Barren	Elgoibar	4.000
13. Berrigara	Bergara	5.300
14. Branka	Pasai Antxo	2.800
15. Hernaniko kronika	Hernani	2.200
16. ...eta kitto!	Eibar	7.400
17. Galtzaundi	Tolosaldea	5.500
18. Goibekokale	Elgeta	650
19. Goienkaria	Debagoiena	20.000
20. Goierritarra	Goierri	8.200
21. Irutxulo	Donostia	5.000
22. Gaztetxulo	Euskal Herria	10.000
23. Karkara	Orio	2.600
24. Lau Haizetara	Errenteria	2.800

ALDIZKARIAK	Eremua	aleak
25. Maxixatzen	Azkoitia	1.500
26. Noaua!	Usurbil	2.200
27. Orratx	Lezo	2.500
28. Pilpilean	Soraluze	1.800
29. Txintxarri	Lasarte-Oria	4.500
30. Uztarria	Azpeitia	2.200
31. Ze barri?	Eskoriatza	1.500
NAFARROA		
32. Guaixe	Sakana eskualdea	3.500
33. Ttipi-ttapa	Bortziriak, Malerreka, Baztan eta Sara	7.500

IRRATIAK

BIZKAIA	Eremua
34. Bilbo Hiria irratia	Bilbo
GIPUZKOA	
35. Arrasate Irratia	Arrasate
NAFARROA	
36. Belexe irratia	Sakanako eskualdea

TELEBISTAK

GIPUZKOA	Eremua
37. GOITB	Debagoiena
NAFARROA	
38. Ttipi-ttapa	Bortziriak eta Malerreka

Ortzadar

Ibargarai 8. 943 76 54 73 Bergara

Kortsetegia, mihisedenda, pijamak
eta osagarriak



Saunier Duval



DICOMAN S.L.

San Lorenzo, 21

20.570 Bergara

Laguntza teknikorako zerbitzu
ofizial baimendua

Tf. 943 76 06 61

BEROGAILUAK, KLIMATIZAZIOA ETA UR BEROA

Mila Eizmendi

Topaguneko komunikabideetako teknikaia

“Euskaldunak elkartu eta kohesionatzea dugu helburu”

Topaguneak, euskara elkartearen federazioak, hainbat arlo ditu, euskara elkarteek eurok dituzten bezala. Horietako bat, komunikabideena. Mila Eizmendi arlo horretako arduraduna dugu.



Zertarako sortu zen Topagunea?

Duela bost urte sortu zen Topagunea. Garai hartan gorputz dezentea zuten elkarte batzuek, bospasei elkarte, euren bidetik abiarazi nahi zituzten beste hainbat elkarte. Esan daiteke, helburua altruista samarra zela. Izan ere, momentu hartan nahikoa gorpuztuta zeuden elkarteak bildu ziren, eta helburua, euren burua areago indartzera jo baino, sortu nahian eta ibilbide horri heldu nahian dabilzan elkartei laguntza ematea izan zen.

Topagunea, dena dela, euskara gizarteratzeko zereginen bitartekari bat da. Nola egiten du lan hori?

Topagunea, azken batean, euskara elkartearen federazioa da. Egitura, behetik gorakoa du. Hau da, euskara elkarteetako ordezkariak dira batzordeko kideak, zuzendaritza batzordekoak eta abar. Topagunearen helburua, oro har, tokian tokiko euskaldunak elkartzea eta kohesio bat lortzea da, ideologiak eta alderdikeriak alde batera utzita; modu programatu batean euskaraz bizitzeko tokia irabazten joatea, hau da, “euskalduna naiz” aldarrikatzenetik “euskaraz bizi behar dugu eta horretarako

zer egin behar dugu” hori gehiago lantzea. Beraz, Topagunearen zeregin nagusia, nire ustez, euskara elkartearen federazioa izanik, elkarteetan nagusi diren programen osagarri diren programak gauzatzea eta horiek taxutzea da.

Hasiera bateko helburuak betetzen ari dira?

Topagunea erakunde jaioberria da, umea da; oraindik erakundetze premia handia dauka. Nik uste dut espektatiba bat badagoela: Topagunea zerbait badela eta berea emango duela. Baina, nik uste dut pixkanaka-pixkanaka ari dela hazten eta egituratzen Topagunea. Lehen esan dudana helburuari dagokionez, nik uste dut lortu dugula euskara elkarteak sendotu eta batzea.

Bestalde, lehen esan bezala, euskara elkarte bakoitzak baditu bere programak, bere planak, eta, horietan oinarrituta, Topaguneak ere bere plan estrategikoa egin behar du. Aspektu horretan, badago zereginik; urrats dezentente daukagu emateko.

Euskal Herri guztiko herri komunikabide eta euskara elkartearen egoera inork baino hobeto ezagutuko duzu. Zelan ikusten duzu gure bilararen egoera?

Hor egitate bat dago: Debagoieneko sortu zen euskara elkartearen lehen mugimendua AED eta Jardunen sorrerarekin. Esan dezakegu, nolabait, Topagunea ume bat dela esan badugu, hauek bere gurasoak direla. Hazi ere, dezente hazi dira elkarteok. Debagoieneko gizartean euskarak duen egoera, eta horretan euskara elkarteek parte garrantzitsua dutela uste dut, nahiko ona dela; euskaraz jende askok jakitez gain, erabili ere asko erabiltzen delako eta sozializazio handia lortzen ari delako.

Epe motzera, ze egitasmo dauka Topaguneak herri komunikabidei dagokienez?

Epe motzera, datozen lau urteetarako plangintza bat egin nahi dugu, multimedia hartuta, batez ere. Bestalde, informatikako zerbitzua erabat finkatu eta sistematizatu nahi dugu, bai mantenuan, konponketak, ikastaroak, erosketak. Informatikaren alor honetan, epe motzera ikusten dugun berrikuntza nagusia internetekin lotuta dago: Topaguneak bere atari propioa izango du urtarrilean. Bertan euskara elkarte guztiak agertuko dira, eta baita herri aldizkariak ere.<



REVELADO
+ 24 COPIAS EN PAPEL
KODAK ROYAL
TAMAÑO 11,4x17,1cm
+ COPIA INDEX V
ALBUM DE PIEL ECOLÓGICA

ERREBELATU ONENAK

Album bat
Kopia index-a
eta rollo bat opari



ARGAZKI KAMARAK

Marka onenak
prezio onenetan



ARGAZKIGINTZA DIGITALA

eta orokorrean
argazkigintzaren inguruan
behar duzun material guztia



ZERBITZU DIGITALA

Erretatu zaharren
konponketak, argazkiak retokatu,
fotomontajeak eta abar...



KOPIA DIGITALAK

Artxibo informatiko batetik. (Disketea,
optikoa, zip-a, cd-rom-a, tarjetak)



**ESKANER
ZERBITZUA**

Argazki, diapositiba
edo transparentziak
eskaneatzeko bidea.
Kurrikulumerako,
Internerako, eta
abar...



*Gabon zoriontsuak eta
urte berri on opa dizuegu*



ederTU



Barrenkalea 23

Masterreka 9

Iragarkiei tarte bat


Badira hamar urte Berrigara zuen etxeetan jasotzen duzuela. Sortu zenetik, gainera, doan banatzen da. Baina hori ez da nolnahi lortzen. Bi diru-iturri nagusi izan ditu, eta ditu, gure Bergarako astekariak: hainbat erakundetatik jasotzen dituen diru-laguntzak eta publizitatea.

Baina gure helburua beti izan da autofinantziazioa; hau da, Berrigara bere kabuz finantziatzeko gai izatea. Eta autofinantziazio hori lortzeko bidean publizitatea da errege, duda barik. Urtetik urtera igo egin dira publizitate sarrerak. Izan ere, Berrigara gero eta etxe gehiagotara heltzen da (5.300 etxetara), eta horrek erakarri egiten ditu iragarleak.

Baina aldaketak ez dira, bakarrik, kantitatearen aldetik eman; publizitatea areagotzearen arrazoia ez da, soilik, horretara mugatzen. Kalitateari gero eta garrantzi handiagoa ematen diogu, eta diseinuaren aldetik aurrerapausu nabarmenak eman ditugu, edo, horretan saiatzeko gara, behinik behin. Aurrerapausu horiek, publizitatean ere eman dira. Gogoratu, bestela, hasiera hartako iragarkiak. Gaur egun, asko lantzen eta zaintzen da iragarki bakoitza.


Gure aldizkari hau finantziatzen laguntzen gaituzuen guztioi, beraz, gure eskerrik beroenak. Urte haueetan guztietan gure orrialdeetan iragarri zaretzen herriko denda, lantegi, taberna eta bestelako enpresei eskerrik asko.<

Publizitate sarrerak 1991-2000




Autofinantziazioa eta diru-laguntzak

1991 urtea



1999 urtea



Iragarleak mintzo

Urte hauetan guztietan iragarle asko eta asko izan ditu Berrigarak: laurehun baino gehiago. Horien guztien artean, honako hauekin hitz egin dugu euren iritziak ezagutzeko.



Jon Larrañaga. Larrañaga Optika

Herriko aldizkaria izanik, ia etxe guztietara heltzen da. Hori dela eta, prentsa irakurriena dela esango nuke. Horrek geure publizitatea jende askoren eskuetara heltzen dela esan nahi du.



Luis Mari Gutierrez. Guipuzcoana

Bezero berriak gureganatu nahi ditugu Berrigararen iragarkiak eginez. Izan ere, kontuan hartu behar da herriko etxe guztietara heltzen dela eta baita Bergaratik kanpoko hainbat etxetara ere.



Ramon Bastida. Sukalde altzariak

Gure negozioa herrian bertan oinarritzen dugunez, oso ondo etortzen zaigu Berrigararen iragartzea herritarren artean ezagutzera emateko. Eta igartzten da: jendeak esaten digu Berrigararen gure iragarkia ikusi duela.



Adrian Arrese-Igor. Zumelaga jatetxekoa
Gure negozioari oso ondo etortzen zaio Berrigararen iragartzea, herritar gehienengana iristen da eta. Gainera, era berean, herriko aldizkari bati laguntza ematen ari gara.



Jon Ander Egaña. Etxeberria bitxitegikoa
Hasieratik egiten dugu publizitatea Berrigararen. Daukan abantaila da hartzen duten guztiak herrikoak direla, hau da, gure bezeroak direnak eta izan daitezkeenak.



Karlos Etxaniz. Ola Tailerrak

Gurea Europa osoan zabaldua dagoen enpresa izanda ere, ez digute nagusiek inoiz arazorik jarri publizitatea euskaraz egiteko. Badakite, euskara aproposa dela bezeroarengana heltzeko.

Joxerra Garzia EHUko irakaslea

“Herri prentsak euskarazko publizitatea sozializatu du”

Asko hitz egiten da egun euskal prentsaz, eta hortan herri aldizkariak izan duten garrantziaz, baina zertan da euskarazko publizitatea? Horretaz, hain justu, hitz egin nahi izan dugu Joxerrarekin, EHUko publizitateko irakaslearekin.

Herri aldizkariak zer paper bete dute euskarazko publizitatean?

Nik uste dut hizkuntzarekiko bete duten paper bera bete dutela. Irakurle-ekiko daukaten gertutasuna baliatuz, lortu dutena da bestela irakurtzen ez duen jendeak euskaraz irakurtzea. Eta publizitatearen kasuan, nazio mailako komunikabideetan sekula iragarriko ez lirakekeen iragarleak herri aldizkarietan iragartzea. Konturatu dira eraginkorra izan daitekeela. Beraz, bai euskara bera, eta bai euskarazko publizitatea sozializatzeko eginkizuna izan dute.

Hala ere, badira euskaraz iragar-tzeari funtsik ikusten ez diotenak. Zergatik erabakitzen du iragarle batek euskaraz iragartzea?

Hori aztertzeke dago, baina uste dut hiru tipologia agertuko lirakeela. Alde batetik, euskaraz dakitenen masa kritikoa dezente areagotu da; beraz, euskarak badu publizitaterako merkatua. Gazte jende gehiena gai da euskaraz irakurtzeko, eta, zaharrek ere, albisteak bertakoak direnean, ahalegina egiten dute. Bigarrenek honakoa pentsatuko lukete: euskarazko publizitate-

ak, berez, ez duela hainbeste ematen saltzeko, baina, orain arte, behintzat, euskararen alde egoteak izan du balio erantsi bat, eta markari erantsi diezaioke marka ezaugarri mesedegarri bat. Azkenik, bada beste hau pentsatzen duenik ere: “gizajo hauek ari dira lanean, herrikoak dira, jatorrak, eta, ez dut batere sinesten, baina, hala ere, eman egingo diet”. Ia ia limosnaren tankerako publizitatea izan daiteke.


Euskara, hizkuntza bezala, publizitaterako egokia denik ere zailantzan jarri dute batzuek.

Linguistikaz pixka bat dakienak, eta esaten duenak hizkuntza bat beste bat baino kaskarragoa dela -publizitaterako edo beste edozertarako-, ezjakintasun handia erakusten du. Hizkuntza guztiak, berez, berdinak dira. Arazoa soziala da; arazoa ez da hizkuntzaren izaera. Bestalde, askotan, erdaraz diseinatzen dira iragarkiak; eta, azkenengo unean, eskura dagoen lehen euskaldunari ematen diote. Zorte pixka batekin euskaraz taxuz dakiena baldin bada, itzulpen zuzena egingo du, baina publizitatean ez da itzulpen zuzena behar izaten, egokia baizik. Egokia zer da?

Txispa duena, indarra duena: ahalegina egin behar da erdarazko testu horren ordaina topatzeko. Noski, ideala izan-go litzateke euskal iragarle handiek, ETB kasu, bere autopublizitatea, gutxienez, euskaraz egitea; orduan, erdarak izango litzuzke arazoak.

Publizitateak hizkuntzari laguntzeko balio izan al du, hiztegiari dagokionez, esaterako?

Hiztegiari dagokionez ez horrenbeste. Nik beste alderdi bat azpimarratuko nuke: gazteen artean, batez ere, eta hori da irabazi beharreko alorra, prestigio handia du, oso mundu erreferentziala da. Horregatik, publizitateak badu euskarari prestigioa emateko izugarriko balioa, baina, noski, hamarretik bederatzitan erdaraz sortu eta halamoduz itzultzen bada... Ahalegina egingo balitz euskaraz sortzeko edo itzulpen egoki samarrak egiteko, asko irabaziko luke euskarak. Beraz, hemengo iragarle handiek, eta ofizialek batez ere, egin beharko lukete esfortzu hori, jakinda saltzeko medio egokia izan daitekeela, eta euskarari izugarriko mesedea egingo lioketela.<



GARI GARIBALDE

K3
 inprimategia
 943 762741
 k_3@grn.es
 zorionak

MULTIOPTICAS
 1. GOAK ZERBITZU OPIKATETAN

MULTIOPTICAS-ekin OPARITAN EZBERDINTASUNA

	14.500 pta GABONETAN 11.500
	3.400 pta GABONETAN 2.400
	18.700 pta GABONETAN 13.700
	8.800 pta GABONETAN 6.850
	7.900 pta GABONETAN 5.950
	16.000 pta GABONETAN 11.000
	8.990 pta GABONETAN 6.800
	3.950 pta GABONETAN 2.600

EGUZKIA
 azkenengo bilduma

% -20

marka guztietan

Dolce & Gabbana
 GUCCI
 MOSCHINO
 Christian Dior
 bolle
 FLORENCE VOGUE
 GIORGIO ARMANI

ZORIONAK

BERGARA
 ARRASATE
 ORDIZIA

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Euskara hamar urteotan



euskarari

Berrigara euskarazko komunikabidea izanik, ezin alde batera laga euskarak berak hamar urte hauetan izan duen bilakaera, eta ezta euskararen normalizaziorako bidean egin diren hainbat ekimen ere. Hala ere, badira hainbat arlo -justizia administrazioa, lan mundua eta osasungintza, besteak beste- non euskararen presentzia txikia den.

Duela hamar urte egin zen azkenengo azterketa soziolinguistiko-a Bergaran. Siadecok egin zuen. Ikerketa hark asko lagundu zuen momentuko euskararen egoera ezagutzeko. Baina, datu horiek zaharkituta geratu dira; horregatik, udalak azterketa berria egin nahi izan du.

UMEK GEHIEN

Hizkuntza baten osasunaren adierazle nabarmenena erabilera izan ohi da. Horregatik, hain zuzen ere, ekarri dugu grafikara erabilerak herrian izan duen bilakaera.

Jeneralean, erabilera jaitsi egin den arren, kualitatiboki egoerak hobera egin du: zaharren artean gutxiago erabiltzen da, baina gazteen artean bikoiztu egin da erabilera. Hori oso garrantzitsua da, umeak eta gazteak dira-eta etorkizuneko helduak.

HEZKUNTZA EUSKALDUNA BERGARAN

Orain dela lau urtetik Bergarako ikasketxe guztietan D eredia dago bakarrik eskolaurrean. Horrek esan nahi du haur guztiek dakitela euskaraz. 25 urtetik beherako gazte gehienek ere euskaraz dakite. Derrigorrezko hezkuntzan ere nabarmen egin du gora D ereduak. Baina, B eta A ereduetan ere badago ikasterik. Dena dela, ego-

era hau laster aldatuko dela espero da, atzetik datozen haur guztiek D ereduan ikasi dute-eta.

Irakaskuntza ertainetako egoera bestelakoa da. Hamar urte hauetan euskaraz bilakaera positiboa izan duen arren, 15 urtetan %0tik %75era, oraindik ere hutsune ugari dago. Izan ere, badira euskaraz egin ezin daitezkeen ikasketak. 15-19 urte bitarteko gazteen %93k euskaraz dakite, eta adin horretako %20 gaztelaniaz ikasten dabilta.


EUSKARAREN ALDE LANEAN

Euskararen normalizaziorako bidean eman diren aurrerapausoetan hainbat faktorek izan dute eragina. Bergaran euskararen alde lanean jardun duten, eta diharduten, eragile horietako batzuk ekarri ditugu gogora.

AEK

AEK-k 1994ko otsailean ireki zuen Akulu euskaltegia Bergaran. Orditik, asko izan dira bertatik pasatu direnak eta euskara ikasi dutenak.

Eskolaurrean hizkuntzaren bilakaera



TELAETXE S.A.

Oihalen neurketatik etxean
ipintzera arte dena gure esku

**Fabrikako
preziotan**

Elgeta bidea,
gasolindegitik
300 metrorra
• BERGARA •
Tel.: 943 76 39 40 / 41
Astelehenetik larunbatera
10:00etatik 13:00etara
eta 16:00etatik 20:00etara
zabalik

- Kortinak
- Kortinoiak
- Estoreak
- Fundak
- Mantelak
- Nordikoak
- Izarak
- Oihalen neguko
kolekzio berria
ikusgai
eta orain
ALFONBRAK



ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka 4, behea Tf. 943 76 18 93

*Egurrezko materiala
eskuz pintatzen dugu.
Eskulanetarako gaiak.*

ONDO PASAU JAIXAK!




AZKARATE
AROTZEGIA
Arotzak gara.

Euskara irakasteaz gain, herrira begira ere hainbat ekintza antolatu ditu AEK-k. Garrantzitsuenetako bat nazio mailan egiten den Korrika dugu; eta, Korrikaren barruan, Korrika Kulturala. Bestetik, 1997an hasi eta joan zen urtera arte Asmaizu lehiaketan euskaraz jolasteko aukera ere eskaini du AEK-k. Gainera, beste talde batzuekin elkarlanean jardun du, eta baita hainbat ekimen burutu ere: Gaztainerre Eguna, Santa Ageda eskea, Bai Euskarari kanpaina, txoznabazordea... AEKren azkenengo ekimena Justizia Administrazioan euskararen normalizazioa bultzatzeko plataforman parte hartzea izan da.

UDAL EUSKALTEGIA

Ia hogeitau urte ditu Udal Euskaltegiak: urteotan hainbat herritarri euskara eskolak eman dizkio, eta baita ikastaro bereziak antolatu ere: gurasoendako, merkatarieendako, administrazio langileendako, irakasleendako... eta baita lantegietan ere. Gainera, ikasleei euskara ikasgelatik kanpo erabil daitekeen hizkuntza dela erakutsi nahian, hainbat ekintza antolatu ditu: hala nola, sagardotegieta irteerak,

Kale erabilera 91-99



mendi-irteerak, argazki eta mozorro lehiaketak inauterietan, afariak...

UDALEKO EUSKARA ZERBITZUA

Duela hamar urte, udalak eskatuta, Bergarako azterketa soziolinguistikoa egin zuen Siadecok. Horretan oinarrituta, udalari eta herrian euskara normalizatzeko plangintza bat egin

zuen. Urte berean, B ereduko ikasleak D eredura pasatzeko ikastaroak ematen hasi zen.

1991n "Euskara gazteena" kanpaina jarri zuen abian eta euskararen hitzarmena sinatu herriko 49 entitateekin. Urte hartan bertan udalarekin harremanak euskaraz izan nahi zituzten herritarren errola egin zen eta

10 urte jardunean, eta aurrerantzean?

Orain dela hamar urte elkartu ginanok jardun berean hamar urte geroago irautea pozgarria zait benetan, nahiz eta orduan sortu genuen Jardun Elkartearen beharrik ez izateak, kontraesana ez bada, gehiago poztuko nindukeen. Bere helburua lortzeak bere desagertzea ekarriko duen elkarte dugu Jardun. Izan ere, euskaldun izateko baldintza guztiak ahalbideratzea dugu helburu eta horretara bideratu ditugu gure ahaleginak hamar urte hauetan.

Zer lortu dugu? galdetuko du norbaitek. Zein eragin nabarmen izan du elkarte honek hamar urte hauetan herria euskalduntzean, euskararentzat esparru guztiak irabazteko prozesuan, izandako aurrerakadan? Gure estrategiak kasu bakoitzerako egokienak izan al dira? Eraginkorago izan gintezkeen?

Galdera dexente ditut erantzun beharrean. Eta galderetan bat garrantzitsua iruditzen zait: Jakin al dugu herritarrak batu, eus-

kal izaeraren ingurura erakarri eta, aipatutako helburua lortzeko, bakoitzak euskalgintzan dugun erantzukizunaz jabe egiten?

Ba, neure ustetan, neurri baten, baietz esango neuke. Normaltasuna eskuragarriago daukagula iruditzen zait. 1990eko gabonetan Jardunetik lehen Berrigara kaleratu zenean, urte beteko bizitza ere ikusten ez ziotenik bazen. Hamar urte geroago astero etxean espero ez duenik ez dago. Eta egunkarira, Goienkarira, goaz. Goierna telebista martxan dugu azken teknologiak euskararen zerbitzura ipini eta zerbitzu telematikoak, internet, eskaintzeko bidean gaude. Guzti hori bostehun bazkiderekin lor badaiteke zertara helduko ginatke doblearekin?

Komunikabideena da ekintzarik bistosena, dudarik barik. Baina Jardunen eragintxoan asteroko ekintza mordosketan nabarmendu beharrean nago. Oihartzun handiegirik barik, eragiten, lantzen, bultzaten, eta abar luzean dihardu elkarteak, dihardute el-

kartekoe. Lan horrek ere bere eragintxo dauka gaztetxoan denbora librean, euskara errefortzuetan, nagusiagoen astialdirako ikastaroetan, kantaldietan, herriko jaietan Egunerokotasuna, bai, baina hau ere hamar urtean egiten diharduguna.

Eta jardunean erronka berriak ditugu bidean: abiadura azkartu beharrean gaude; koordinazioa eraginkor bihurtu behar dugu; euskararen kalitatea kontutan eduki eta bereziki landu behar dugu; euskalkiaren balioaz jabetu eta eskolaratu behar dugu; Debagoiena eskualdeari so egin eta, komunikazio esparruan lez, elkarlanean, dinamika berriak sortu behar ditugu.



Jose Angel Mikeo
Jarduneko lehendakaria

Etorkizuna jorratzen Debagoienera

NORTASUN EZAUGARRIAK

- **Gizartearen eraldakuntzan konpromiso finkoa**
- **Kalitatezko prestakuntza integrala, enpresen eskaerei bideratua**
- **Pertsonaren garapen integrala du helburu**
- **Autokudeaketan, taldeko lanean, kooperazio eta parte hartzean oinarritutako heziketa.**
- **Praktikak eta ikerketa proiektuak enpresetan**
- **ALECOP-en lan egin, eta, aldi berean, ikasketekin jarraitzeko aukera**

ESKAINZA FORMATIBOA

Unibertsitate-titulazioak:

- Mekanikako Industria Ingeniaritza Teknikoa
- Industria Elektronikako Ingeniaritza Teknikoa
- Sistemen Informatikako Ingeniaritza Teknikoa
- Industria Diseinuko Ingeniaritza Teknikoa
- Gestio-Informatikako Ingeniaritza Teknikoa
- Telekomunikazioetako Ingeniaritza Teknikoa (Homologazio prozesuan)
- Industria Antolakuntzako Ingeniaritza (2. zikloa)
- Automatika eta Elektronika Industria Ingeniaritza (2. zikloa)
- Industria Ingeniaritza (2. zikloa)
- Informatikako Ingeniaritza (2. zikloa)
- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziatura
- Humanitate-Enpresan lizentziatura
- Psikopedagogian lizentziatura (2. zikloa)
- Irakasletzan diplomatura: Haur Hezkuntza, Hezkuntza Berezia, Atzerriko Hizkuntza.

Goi-mailako heziketa-zikloak

Graduatu ondorengo irakaskuntza hainbat arlotan: masterrak



Goi Eskola Politeknikoa
Arrasate



Enpresa Zientzien Fakultatea
Oiñati



Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
Eskoriatza

Bergarako toponimia euskaraz jaso eta finkatzeko beka sortu zen.

1993an "Kirola euskaraz" programa sortu zuen. 1999an beste azterketa soziolinguistiko bat egiteko hitzarmena sinatu zuen EHUrekin. Horrekin, 2004. urtea arteko hizkuntza politikaren lan-ildoak finkatu nahi dituzte.

Aurten, administrazioan euskararen erabilera bultzatzeko bigarren plana onartu da.

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

Duela bost urte sortu zen. 1996ko udaberrian "Euskal Herriak izan behar du euskalduna eta libre" nazio mailako kanpainaren barruan Bergarako EHEk kontzertu erraldoia antolatu zuen Jam aretoan. EHEk nazio mailan antolatu izan dituen errebindikazioetan oinarrituz, errebindikazio horiek herriratu ditu.

1999an 20 urte bete zituen EHEk. Urteurreneko ospakizun sortaren barruan, urte horietako historia erakusten zuen karpa ibiltaria Arrasaten izan genuen. Aurten sortu den Justi-

zia Administrazioa euskalduntzeko plataformaren bultzatzaile eta kideetako bat ere badugu.

JARDUN ELKARTEA

Duela hamar urte sortu zen Jardun, maiatzaren 17an, hain zuzen ere. Abenduaren 15ean, berriz, elkartearen baitan, Berrigara aldizkariko lehen aleak argia ikusi zuen.

Urte bat geroago, kultura taldea jarri zuten abian. Taldearen helburua euskal kultura zabaltzea eta kultura jarduera euskaldunak bultzatzea zen.

Urte berean, gazteen aisialdian euskaraz zuen gabezia asetzeko, gazte taldea sortu zuen Jardunek. 1991tik aurrera, kultura eta gazte taldeek ekitaldi ugari antolatu dituzte: hala nola, kantu ikastaroak, literatura tailerrak, amodiozko gutunen lehiaketa famatua, eta abar.

1995ean neska-mutikoen aisialdirako ekintzak antolatzen hasi zen Jardun 11-14 urte bitarteko gaztetxoek euren aisialdian euskaraz hitz egiteko ohitura har zezaten.



25etik beherako gazte gehienek euskaraz badkite.

1997tik aurrera, udalak antolatzen zituen euskara errefortzu taldeak Jardunek hartu ditu beregain.

Jardun ere Justizia Administrazioa euskalduntzeko plataformaren kidea da.<



metagra

**Bergaran
UNE-EN-ISO14.001
Ingurugiro kudeaketaren
ziurtapena lortu duen
lehen enpresa**

Hotzean estampatutako finkapen-elementuak fabrikatzeko enpresa gisa ziurtatuta

Automobilaren eta ibilgailu industrialaren sektorean 30 urteko esperientziaren bermea dugu. Ziurtapen hauek jaso ditugu:

- Kalitate sistemak: UNE-EN-ISO 9002 • EAQF94 • VDA6 • VALEO 1000 • RENAULT V.I. • BOSCH
- Ingurugiro Kudeaketaren Sistema: • UNE EN ISO 14001

GURE JARDUKETA EREMUA:

- Bezeroaren satisfazioa
- Etengabeko hobekuntza
- Produktuaren kalitatea noski
- Prebentzioa, ez detekzioa
- Ingurugiroaren babesa


**Amilaga, 22 - 20570 Bergara - Tel: 943 76 13 48 - Faxa: 943 76 50 34
e-mail: mse@metagra.com - Website: www.metagra.com**



Olatz Olaso. Soziologoa

"Gazteen artean izugarri igo da euskararen erabilera"

Olatz Olaso Soziologian lizentziatua eta Bergaran euskarak bizi duen egoera aztertzen dihardu. Bergarako Udala eta EHUren artean dihardute lan horretan. Abendurako amaituko dutela espero du Olatzek.



Duela hamar urte Siadecok egin zuen antzerako azterketa bat. Nola aldatu da egoera ordutik?

Siadecok egin zuen azterketa hura ere Udalak eskatuta egin zen. Baina kontuan hartu behar da hamar urte hauek asko aldatu dela azterketa soziolinguistikoko egiteko era. Eurak inkestetan oinarritu ziren, batik bat. Gu, berriz, gehienbat, dagoeneko batuta edo jasota zeuden datuak erabili ditugu, geure azterketa hau osatzeko, 96ko mapa soziolinguistikoa, esaterako. Horregatik, parekotasun bat zeukaten datuak konparatu ahal izan ditugu, baina oso gutxi izan dira. Datu asko egon dira konparagarri ez zirenak.

Datu bilketa bukatu duzue. Ze irakurketa egin daiteke? Kualitatiboki bilakaerarik egon al da?

Bai. Gaitasunari dagokionez, izugarriko saltoa ikusten da ikastetxeen eraginez. 25 urtetik beherako bergarar guztiek euskaraz hitz egiteko gaitasuna dutela esan dezakegu, salbuespenak salbuespen. Eta salto horrek beste gauza askotan eragiten du, zorionez. Euskaldun gehiago egoteak euskara gehia-

go erabiltzea ekarri du. Nahiz eta orokorrean erabilera ez den igo, horren atzean, bestelako irakurketa bat egiten dugu guk. Izan ere, gazteen artean izugarri igo da erabilera, eta helduenen artean, berriz, jaitsi egin da. Oso garrantzitsua da hori kontuan hartzea, gazteak eta haurrak dira eta etorkizuna. Etxean ere gazteak eta haurrak dira euskara gehien erabiltzen dutenak.

Zein alorretan dago egoerarik kaskarrena?

Euskararen egoera oso kaskarra da lan-munduan, eta, gainera, garrantzi handia daukan alorra da. Alde batetik, eguneko ordu asko eta asko lanean pasatzen ditugulako gehienok. Bestetik, gaur egun lan mundura iristen ari diren gazte gehienak euskaraz bizitzeko eta lan egiteko gai direlako. Hezkuntza mundutik lan-mundura salto ikaragarria dago. Gehiena euskaraz ikasi ondoren, lantegi batera joan eta dena gaztelaniaz egiten dela ikusten dute gazteek. Horrez gain, orain arte enpresa mailan ez da ezertxo ere egin euskarari dagokionez. Oraintxe hasi dira enpresa batzuk, tartean baita Bergarakoak ere, planak diseinatzen.

Administrazioan ere, Udalean izan ezik, Udal oso euskalduna baita Bergarakoa, euskararen egoera ez da askoz hobea. Batez ere, epaitegiko eta anbulatorioko egoera larria da.

Udaleko datorren urterako hizkuntza politikaren lan-ildoak zehaztea duzue helburu. Zertan datza?

Oraintxe dihardugu horretan. Alde batetik, euskara biziberritzeko plan orokor bat egongo da. Baina, gure asmoa lan hori arloz arlo egitea da. Horretarako, arlo bakoitzeko ordezkari iritzia eskatu nahi diegu: irakasleak, merkataria, gurasoak, administrazioko langileak... Fitxa batzuk egin ditugu; bertan, euskarak euren arloan bizi duen egoera azaltzen zaie, eta, horrekin batera, alor horietarako gaur egun dauden programak. Guztien iritzia baturu ostean, datozen lau urteetarako lan-ildoak zehaztea da gure helburua: ordezkari horiek guk emandako fitxak aztertu ditzatela, eta euren hausnarketak jasoko ditugu, eta guztion artean egoera behar bezala aztertu ondoren, dauden hutsuneak betetzeko lan-ildoak zehaztea, hain zuzen ere.<



BILTOKI

ASPIZA S.L.



dekorazioa

ESTILO KLASIKOKO ALTZARIAK ETA GAZTE ESTILOKOAK
ALFONBRAK, KORTINAK, LARRUZKO SOFAK...
DEKORAZIORAKO OSAGARRIAK

SAN MARTIN PLAZA Tf.: 943 76 43 51



sukalde eta bainuak

SUKALDE ETA BAINURAKO ALTZARIAK
DISEINU ETA KALITATE HAUNDIKOAK
GARANTIA ETA ZERBITZU HOBERENA

SAN PEDRO PLAZA Z/G Tf.: 943 76 34 00



elektragailuak

MERKATUKO MARKARIK ONENAK
BARRENKALEA 6 Tf.: 943 76 25 96



Dekorazio Osagarriak

Barrenkalea 12

**BILTOKIK markarik onenak eskaintzen dizkizu
IKUSENTZUNEZKOETAN**



PHILIPS

SONY

SAMSUNG



PIONEER

BANATZAILE OFIZIALA

Barrenkalea 6 Tf.: 943 76 25 96

**1955. urtean sortua
45 urte herriaren zerbitzura**

Urrun heldu al daitezke enpresak garraio zerbitzu aurreratu bat gabe?



EZ

Begiratu Europa berriari eta merkatu bakarra ikusi. Herralde bakar bat balitz bezala erantzuteko ahalmena duen garraio sare batekin.

Begiratu etorkizunean pentsatzen duten enpresei. Ikusi jada eskatzen ari direla lojistika eta garraiorako aukera berriak. Eta erantzun egokiena eman.

Begiratu ekonomia berriari. Eta ikusi garraioa eta distribuzioa ezinbestekoak izango direla. Nola hitzegin genezake Internet-en bidezko salerosketetaz, primerako garraio zerbitzu bat gabe?

Hauk dira, **Guipuzcoana, Deutsche Post Euro Express** taldean sartzeraz bultzatu duten arrazoiak, Europako garraio eta distribuzio sare aurreratu baten partaide izateko: **Euro Express**.

Emaitzak bidean daude.